



Hobetzeko tarte handia

Sakandarren %42 euskalduna da eta %14,2 euskaldun hartzailea. Kale erabilera, ordea, %24,3koa besterik ez da / 2-5



Landa eremuko emakumezkoen zereginei aitortza eta haien premiak asetzeko eskaera / 9

Igandeko Txistor Egunarekin batera produktuarendako kalitate ziurtagiri eskaera European / 11,13

Castillo Suarez Garcia altsasuarra euskaltzain oso izendatu dute, Zabaletaren orde / 8

Bakaikuarrok herri kooperatibak denda zabaldu zuen atzo eta gaur irekiera ospatuko dute / 12

Euskal Herriko Erdigunera Martxa, mendi federazioen konpromisoaren abiapuntua / 20

Eneko Lazkozek txapelketako saioa "disfrutatu" zuen; emaitzak ez ziren esperotakoak izan / 21

Iortia kultur gunea Altsasuko idazleen eta Mikel Santiago idazlearen topagune izanen da / 23



Milaka motorzale bilduko dira larunbatean 40. Urbasako Igoeran. 100 pilotu lehian / 17

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Bost urtean behin egiten da euskararen kale erabileraren neurketa. Joan den urtean egin zen. Datuak aztertu ondoren, emaitzen garaia da.

Zer da euskararen kale neurketa?

Ikerketa deskriptibo bat da. Gure herrietako kaleetan zenbat euskara entzuten den jakiteko aukera ematen digu. Gure herrietako kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak behatzen ditugu. Elkarrizketa horiek zein hizkuntzatan diren jasotzen dugu. Eta informazio horretatik ateratzen dira datuak.

Ikerketa zertarako egiten da?

Euskara biziberritzeko halako zientzia ikerketen beharra oso garrantzitsutzat dugu Soziolinguistika Klusterrean. Saiatzen gara zientzia oinarria duten ekarpenak egiten, euskararen biziberritze prozesua sustatzeko. Errealitatean nola eragin dezakegun jakiteko lehendabizi errealitate bera ezagutzea garrantzitsua da. Halako ikerketen bidez, kasu honetan kale erabileraren neurketaren bidez, euskararen egoeraren argazkia, informazio xeheagoa eskura dezakegu. Ondoren, plangintzak edo politikak diseinatzeke ikerketa lagungarria izan dadin.

Hizkuntza baten kaleko erabileran zer faktorek eragiten dute?

Hizkuntzaren kale erabileraren aldagaiak oso aldakorak dira. Hizkuntza baten erabilera baldintzatuta dago momentuan aurkitzen dugun solaskidearen arabera, bizi dugun egoeraren arabera... Mila faktorek eragiten dute kale erabileran. Horregatik askotan esaten dugu, datu horiek ulertzeko kontuan hartu behar direla soziolinguistika (hiztun kopurua, hizkuntza ohiturak, hiztunen gaitasuna...), soziodemografia (gizartearen zahartzea) eta soziologia (globalizazioa, hizkuntzarekiko jarrera, ingurune digitala...) adierazleak. Gure kaleen egoera azken 30 urteetan asko aldatu da.

Kale erabileraz hitz egitean zer elkarrizketa mota izan ditzakegun kontuan hartu behar da. Askotan



Maialen Iñarra Arregi ikerketaren berri eman zuen lortia kultur gunean.

"Entzuten diren elkarrizketen laurdena euskaraz dira"

MAIALEN IÑARRA ARREGI SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERREKO KIDEA

Hizkuntzen kale erabileraren Sakanako neurketaren berri eman zuen Altsasun asteartean hainbat euskaltzaleren aurrean

kalean entzuten ditugun elkarrizketak, apika, erabilera informalago bat dute. Maiz kalean elkartzeko gure aisiarako izaten da, edo eguneroko joan-etorrietarako. Momentu

horretarako hizkuntza erabilera dugu. Bestetik, kalean aurkitu ditzakegun pertsonak nabarmen alda daitezke. Kale erabilera datuekin askotan akats bat egiten da, esan daiteke: sakandarren

erabilera hainbestekoa da! Hori ez da zuzena. Sakanako kaleetako erabilera da. Sakanako kaleetan sakandarrez aparte, segur aski beste hainbat pertsonekin ere topo egin daiteke.

Azken bi hamarkadetan euskararen ezagutza handitu egin da Sakanan.

Gaitasunarena kontuan hartzeke aldagai bat da. Erabili ahal izateko aukerak izan behar ditugu. Horretarako baldintza nagusia euskara ulertuko duten pertsonak izatea da, euskaldun masa bat izatea. Baina lehen aipatu bezala, faktore gehiagok eragiten dute. Gaitasunak segur aski gora egingen zuen, baina, aldi berean, euskaraz jakin bai baino gaztelaniaz errazago moldatzen direnak askoz gehiago dira. Euskal Herriko neurketaren testuinguruan esan izan dugu: duela 30 urteko euskaldun tipoa ez da oraingo bera. Ziurrenik lehen lehen hizkuntzatzat euskara zeukaten pertsona gehiago geneuzkan. Orain, berriz, bigarren hizkuntza modura ikasi dutenak gehiago dira eta, beraz, gaztelaniarako erraztasun gehiago izan dezaketzen pertsonak dira. Horrek beste soziolinguistika errealitate baten aurrean kokatzen gaitu. Pertsona horiekin euskara erabiltzeko beste baliabide, egoera eta aukera batzuk sortzeko ahalegina egin beharko genuke.

Zenbat eta herri euskaldunagoa izan, kale erabilera handiagoa. Lotura hori...

Hala da. Gaitasuna eta erabilera gurutzatzen ditugunean, behatzen ditugun herrietan hala identifikatzen dugu: euskaldun gehiago dituzten herriak erabilera oraindik eta altuagoa daukate. Gaitasuna %40 inguruan kokatzen den herrietan hasten da geroz eta gehiago bizkortzen erabileraren tasa hori. Horrek esan nahi du euskaldun masa bat edukitzea beharrezkoa dela geroz eta euskara gehiago entzuteko. Lehen esandakoaren harira, %40ko langa hori duela 30 urte %30 inguruan zegoen. Hauda, %30etik aurrerako euskaldun kopurua zuten herrietan erabilera azkarago igotzen zen. Orain, esan bezala, langa hori %40ra igo egin da. Eta lehen aipatutako euskaldunen profilarekin lotzen da. Oraingoak, segur aski, erraztasun eta input gehiago ditu beste hiz-



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiak berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



kuntzetara jotzeko, bereziki gaztelaniara jotzeko. Hortxe dugu gure erronka handienetako bat. **Baina Urdiainen ez da bete lotura. Zergatik izan daiteke?**

Deigarria izan daiteke. Herriko errealitatea gehiago ezagutu beharko genuke. Kale erabilera-
ren datuak bere testuinguruan kokatzeko beharrezkoa da beste aldagai batzuk begiratzea: demografikoak, soziologikoak, kaleko bizimodua aldatu da? Hirigintza aldagaia kontuan har genezake?... Aldagai horiek denak aztertzea interesgarria da ikusteko Arbizu edo Etxarri Aranatz moduko gaitasun kopurua izanda erabilera tasa zergatik gelditzen den beherago. Beste aldagai horiei begiratu behar zaie. Badago gogoetarako tarte bat, aztertze aukera polita.

Sakanan halako ikerketa egiterakoan zein da abiapuntua?

Ibarrean datu bilketa egiten den bosgarren aldia da. Aurrenekoa 2001. urtean egin zen, beraz, azken 20 urteetako bilakaera ezagut dezakegu. Herri mordo bat daude Sakanan eta bederatzitan egin da datu bilketa beti: Irurtzun, Uhartarakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Urdiain, Altsasu eta Olatzagutia. Horregatik, sekuentzia horren argazki esanguratsua daukagu. Ikusten diren joerei begiratzea garrantzitsua da.


Bederatzi herri aztertuta Sakana guztiko argazkia egin dezakezue? Horretarako halako ponderazio bat egiten dugu. Kontuan hartzen

"EUSKARAZ JAKIN BAINO GAZTELANIAZ ERRAZAGO MOLDATZEN DIRENAK ASKOZ GEHIAGO DIRA"

"BESTE ALDAGIAK BEGIRATZEA BEHARREZKOA DA TESTUINGURUAN KOKATZEKO DATUAK"

"20 URTEETAKO BILAKAERA DUGU. IKUSTEN DIREN JOEREI BEGIRATZEA GARRANTZITSUA DA"

Hizkuntzen kale erabilera bilakaera



dugu herri bakoitzean neurtu dugun euskararen kale erabilera mailak, herri horien demografia pisua kontuan hartuta, Sakanako datuetara estrapolatzen dugu. Haztatzea egiten da eta ibarreko errealitateaz hitz egiteko estatistikoki emaitza fidagarriagoak eskuratzen ditugu, horrela, gehiago sakondu dezakegu, esaterako, adin talde, genero edo elkarrizketa osatzen duten pertsonen osaera kontuan hartuta.

Nolakoa da Sakanako argazkia?

Labur esanda: entzuten diren elkarrizketen laurdena euskaraz dira (%24,3). Azken 20 urteetako joera gorakoa da, baina azken bost urteetan joera hori moteldu egin da. 2016ra arte nabarmen gora zihuan: 24,8. Hori puntu gorena. Orain %24,3. Akats tarte %1,1ekoa da. Beraz, ezin dugu esan azken bost urteetan erabilera jaitsi denik. Baina gorako joera hori zerbait moteldu da. **Generoari erreparatuta, zer?** Ez dago alderik, emakumezkoek (%24,6) eta gizonezkoek (%24) maila berean erabiltzen dute euskara. Bietan ere gorako joera du erabilera.

Eta adinarekin zer ondorioztatu duzue?

Euskal Herriko joera orokorra da eskailera itxura sortzea: belaunaldi berriek erabiltzea euskara gehien eta adinekoetara hurbildu hala gutxiago entzutea euskara. Sakanan hurrek hitz egiten dute euskara gehien (%33,3) eta, jarraian, heldu gazteak datoz

(%28,7). Edizio honetan helduen adin tarte bitan bereizi dugu: 25 eta 44 urte artekoak heldu gazteak dira eta heldu nagusiak, berriz, 45 eta 64 urte artekoak dira.

Zergatik bereizketa hori?

Interesgarria da, alde nabaria dagoelako heldu gazteek eta heldu nagusiek egiten duten erabileraren artean. Tarte interesgarri bat dago hor. Hor eragiten duen aldagai bat haurren presentzia da. Haurren presentziaren arabera elkarrizketak bereizten ditugunean konturatzen gara haurrak beste adin taldeekin nahastuta sortzen diren elkarrizketetan euskara gehien egiten da. Kanean behatzen ditugun elkarrizketa asko izaten dira gurasoak beraien haurrekin. Heldu gazteen profil horretan badago joera bat, zaintza ikuspegiarekin lotu daitekeena akaso, umeen heziketan kontuan hartzen diren aldagaietako bat hizkuntza bera izatea. Nolabait, horri eusteko apustu bat egitea. **Eta beste adin taldeek zer erabileraren egiten dute?**

Ondoren maila berean datoz gazteak (%19,9) eta adinekoak (%19,7). Euskara gutxien egiten duen adin multzoa heldu nagusiak dira (%16,7).

Aipatu duzun haurren presentzia beti da aldeko faktorea?

Bai, nabarmena. Elkarrizketak sailkatu ditugu elkarrizketa horietan izan diren pertsonen profilen arabera. Kontuan hartuz gero, alde batetik, hurrek beraien

artean egiten dituzten elkarrizketak eta, bestetik, beste adin tarte guztiek beraien artean izaten dituzten elkarrizketak. Igoera nabarmena sumatzen da haurrak eta beste guztiak nahasten diren elkarrizketetan: haurren eta nagusien artean %39,7koa da euskararen erabilera, hurrek beraien kasa erabiltzen dutena baino gehiago (%24,5), eta nagusiek beraien artean erabiltzen dutena baino nabarmen gehiago (%18,2). Horregatik esan dut haurrak egote hori dela hizkuntzari eusteko faktore garrantzitsu bat.

Hiztun taldeak elkartzean dinamika batzuk sortzen dira, rol eta hizkuntza portaera batzuk daude. Kontuan hartzekoak dira?

Bai. Adin talde berekoen erabilera horrek iradoki dezake egin dezakegun erabilera informala. Bitxia da. Adin talde guztietan txikiagoa da erabilera adinkideekin elkartzen garenean, nahastuta ekartzen garenean baino. Gure ustez oso kontuan hartzeko aldagaia da hori. Azkenean, hizkuntzaren biziberritzea begira, kaleko erabilera informal horretan ere euskaraz naturaltasunez aritzeko apustua edo lanketa egin beharko genuke. Dena den, azpimarratzekoa da gazteen arteko erabilera. Gazteak beraien artean edo besteekin daudenean erabilera maila antzekoa da (%19,6 eta %19,9). Kontuan hartzekoa da, batetik, gu gazteekin kanean topo egiten dugunean, askotan gazteak beraien artean geratuak

daudela. Ez da haurrak eta gurasoak elkartzean ikusten ditugun elkarrizketa tipoaren modukoak. Bestetik, pentsa daiteke erabiltzen duten gazteak euskarari eusten diotela, adin talde batzuekin edo besteekin egon. Oso interesgarria da praktika horri eusteko dituzten arrazoiak ezagutzea. Esaterako, beste adin taldeetan aplikatu ahal izateko. **Beste hizkuntzak, kontuan hartzeko beste aldagaia dira?**







Euskal Herrian %3 inguruko erabilera topatu dugu. Baina herriz herriko errealitatea nabarmen desberdina da. Sakanako argazkian ez da asko aldatu, eta ez da aipagarria. Ibarreko %2,6ko batz bestetik gora hiru herri daude. Irurtzunen elkarrizketen %8,9 beste hizkuntzetan ziren. Ibarreko kopuru altuena da. Datua deigarria egin zait. Ziurrenik kontuan hartzekoak diren beste aldagai batzuk daude: demografia, dauden hizkuntza komunitateak... Ezaugarri hori oso aintzat hartzekoa da herriko errealitate soziolinguistikoa eragiteko. Uhartarakil %4,9koa da. Lakuntzako datua ere azpimarratzekoa da: %3,6. Herri horietan lanketa berezituak egitea interesgarria izan daiteke.

Sakandarren laurdenak euskaraz hitz egiten duela esan duzu. Baina zein da testuingurua?

Eremu zabalagoak hartuta, Nafarroako ipar mendebaldeko kaleetan euskararen erabilera estimatu da %34,5ekoa dela, Sakanan baino zertxobait gehiago egiten da euskaraz. Nafarroa osoko erabilera %6koa da. Iruñerrikoa, berriz, %3koa. Badira aldeak. Erreferentziak beste datu interesgarri bat da Sakanan 2018an euskaldunen kopurua %40 ingurukoa zela. Bigarren soziolinguistika gunean dago, hori %20 eta %50 arteko euskaldun kopurua duten udalerriak osatzen dute. Gune horren erabilera %6koa da. Sakana hortik nabarmen gorago kokatzen da.


Sakanako udalerrietan aniztasun handia dago. Interesgarria da datuak izatea aitzakia polita herriak nola aldatu zaizkigun aztertu ahal izateko. Eta datuek aldaketa horiek guztiak hizkuntzan nola eragin duten ulertzen lagunduko digute. Eta pizgarri izateko. Zein den egoera jakin eta bertan eragin ahal izateko, eta biziberritzea sustatzen jarraitzeko.

Euskararen erabilera udalerrietan




Euskara **Gaztelania** **Frantsesa** **Beste hizkuntzatan**

Hizkuntzen kale erabilera udalerrriaren arabera




Beste eremuekin alderaketa




Hizkuntzen kale erabilera, generoaren arabera




Hizkuntzen kale erabilera, adinaren arabera




Adin talde berekoen artean



Haurren presentziaren arabera



Haur-nagusi taldeetan





ASTEKOA

JAVIER GASTEIG
BARANDIARAN

Hasierak

Inon eta inoiz ez dira errazak izaten hasierak, eta aurreko egunetan ezinezona eta kezka izaten dira nagusi.

Nire kasuan, zutabe hau idatzi behar dudala, badaramat tarte bat bueltaka zeri buruz idatzi

behar dudana erabakitzeke eta erabakia ez da erraza izan. Nire aurreko bizibideak ez du zerikusirik kazeta baten kolaboratzaile edo zutabegile izatearekin eta hortik datozkit kezka eta ezinezona. Dena den, une batez pentsatzera geldituta, hasiera honek, agian, badu uste baino antz handiagoa honen ezaguna zaidan hasierako ebaluazioarekin.

Garai berdinean egiten da, iraila-lastaila bitarte; ikasle / taldekide / zutabegile berriak ezagutu behar dira; arauak ezagutu; lanak proposatu / aurkeztu behar dira data jakinetarako... Badu antzekotasunik bai.

Irakaskuntzako hasiera hau irakaslearen aldetik ezagutzen dut bereziki, baina orain, ordenagailuaren aurrean

jarrira nagoela, hasierako ebaluazioa pasatu behar duen ikasle bat sentitzen naiz. Ikasle bat hasiera hau gainditzeko publikoki lan bat argitaratu behar duena; bere taldekideen / zutabegileen mailak harritu duena eta non sartu den ongi ez dakiena; zuzentzeko irizpideak ezagutzen ez dituen baina froga gainditzeko itxaropena duena.

Hasierak eta akaberek ere ez dute zertan berdinak izan, baina ezin uka ongi hasteak bidea leuntzen duela.

Ikasturte akaberan ikusiko dugu adituen zutabegile honekiko erabakia zein den, mailaz igaro edo errepikatzen geldituta.

Bide batez, bakoitzari berea, aupa ikasleak eta irakasleak, garagarria bitarte bide luze eta malkartsua duzue eta.

HARA ZER DIEN

Udal Azpiegiturak Sozializatu

ALTSASUKO GAZTE ASANBLADA

Udal Azpiegiturak Sozializatu izena du Altsasuko Gazte Asanbaldak (AGA) eta Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) egin duten kanpainak. Gaur egun, krisi kapitalista medio, bizitzaren garestitze nabarmena jasaten ari gara, zeina larriagotu

egin den energia krisia dela eta. Egoera hori gazteen eremuan ere islatua ikusi genuen A.G.A.-k aurrera eramandako kuadrillen prozesuaren dinamikan.

Testuinguru horretan, udalak erakunde publikoak pribatizatzeko prozesu progresibo bat erakusten du, prezioak eta tasak igoz, frontoi publikoak itxiz, eta abar. Hala, 6 puntutan oinarritutako dinamika hasi genuen azpiegitura doako, kalitatezko

eta unibertsalak aldarrikatuz. Kanpainan zehar 800 sinaduratik gora lortu genituen, eta ondoren hauek udaletxean aurkeztu.

Udalak, bere aldetik, jarrera iheskorra izan du hasieratik. Negoziazio-eragile gisa ukatuak izan gara eta bilerak bertan behera utzi zaizkigu azken ulean. Barne burokraziako prozesu bat irekitzen da eta horrek erreklamatuak puntuen fitxa teknikoak sortzea besterik

ez du ekartzen, ez dutenak benetan ezertarako balio.

Udalak du puntuen inguruko azken erabakia, eta bertan, sinatzaileen borondatea kudeatzeko erantzukizuna du. Hala eta guztiz ere, auzolanerako bajera berri bat lortu dugu, hau da 6 puntuetako bat.

Finean, agerian geratzen dira instituzio burgesen mugak proletarioaren kalitatezko bizi-baldintzak bermatzeko. Zentzu horretan, azpiegitura

kalitatezko, doako eta unibertsaleko sarbidea bermatzeko modua espazioen gaineko langile kontrola dela berresten dugu, instituzio burgesetatik kanpo. Beraz, proletarioaren antolatzea independententia antolatzeke dei egiten dugu, egungo sistema kapitalistaren gainbeheraren alternatiba bakarria proiektu komunista baita. Instituzio burgesak borrokatu, sozialismoa eraiki.

GUTUNA

Etxeko ate aurrean daude, zabal dezagun

MIKEL MUNDIÑANO ETA XOCHITL KARASATORRE

NAFARROAKO SARE ETA ETXERATEKO ARDURADUNAK

Euskal preso nafarrak hogeita hamar baino gutxiago dira orain. Aieteko Bake Konferentziatik hona hamaika urte luze igaro direla kontuan hartuta, batek baino gehiagok galde dezake "hogeita hamar, oraindik?" Eta besteren batek ez du ahaztua izango ez aspaldi ia berrehun preso zirela nafarrak. Baina, egia esatera, hogeita hamarreko kopuru horrek aukera ematen du irudikatzeke euskal presorik

gabeko eguna hurbil dagoela Nafarroan.

Oraindik preso jarraitzen duten ia hogeita hamar nafar horietatik, hemezortzi Euskal Herriko kartzeletan daude (bederatzi Iruñean, bost Martutenen eta lau Zaballan), eta horiei etxean preso dauden beste bi gehitu behar zaizkie. Euskal Herritik kanpoko kartzeletan daude, berriz, zazpi euskal preso: Lannemezanen, Sorian, Dueñas-Palenzian, Leonen eta Topas-Salamancan.

Euskal presorik gabeko agertoki bat irudikatzeke aukerak pizgarria izan beharko luke zalantzarik gabe historikoa izango den une hori azkarrago irits dadin, une hori non, ekuazio politikotik sufrimendua

eragiten duen faktore garrantzitsu bat desagertuta, energia guztiak bideratzen hasiko baitira oraindik konpontzeke dauden gaietara: egia, errekonozimendua, erreparazioa, memoria inklusiboa... Gainera, lasaitasuna ekarriko luke ekosistema politikora, arazoaren sakoneko arrazoen inguruko gaiei heltzeko behar-beharrezkoa den patxada.

Ekin behar diogu lanari, presoak etxera itzultzeke bidea tratatzen segitzen duten oztopoak kentzeke. Horietako bat, konpontzen errazena, urrunketa politikaren zikloa behin betikoz ixtea eta oraindik kanpoan dauden zazpi euskal preso nafarrak Euskal Herrira

ekartzea litzateke. Auto handi batean sartzen dira. Bigarren oztopoa litzateke Nafarroari espetxe politikaren gaineko eskumena osorik eskualdatzea, ezinikusi politikoen loturetatik askatuta. Gaur egun begi bistakoa da 0 km-ko kudeaketak normalizazioan laguntzen duela, salbuespeneko izaera deuseztatzen duela eta gizarteratzeko ibilbideak bultzatzen dituela. Azkenik, gizaratek eta errealtateak berak atzean utzi duten garaiko inertzia politikokoak dakartzen oztopoak daude, besteak beste 7/2003 Legearen aplikazio murriztailea, Frantziar betetako zigorrak kontuan ez hartzea, eta zenbait tokitatik

gradu igoerei, baimenei, lanerako edo ikasteko aukerak onartzeke jartzen zaizkien eragozpenak.

Ate ondoan ditugularik, maratilaria heldu eta azken bultzada batez atea zabal-zabalik uztea denon zeregin da: eragile politikoa, behin betiko soluzioen fasea ireki beharko lukeen hauteskunde zikloa aurrean dutela; eragile sozialena, prozesu honen guztiaren egiazko zutabeak baitira; eta herritar ororen. Zurea eta nirea. Donostian, urriaren 8an, larunbata, deituta dagoen mobilizazioak inflexio puntu bat izan nahi du, erdi irekita dugun ate horri bultzada egiteko. Jarri eskua zeuk ere!

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Aurretiazko
Borondateen
Agiria (ABA)

Nire bizitzaren amaierari
buruzko erabaki garrantzitsuetarako
**nik aukeratzea
erabakitzen
dudalako**

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



Argibide gehiagotarako, kontsultatu
aurretiazkoborondateak.nafarroa.eus
webgunean edo zure **Osasun-etxean**.



Olaztiko Gazte Asanbladaren larunbateko kontzentrazioan 350 pertsona egon ziren.

Lehen mailako osasun arreta berregiteko babes eske

Sakanako Osasun Publikoaren aldeko plataformak eragileen artean idatzia zabaldu du

SAKANA

Nafarroako Parlamentuan osasunari buruzko Foru Lege berriaren oinarriak zirriborratuko duen batzordea hilabete honetan eratuko da. Sakanako Osasun Publikoaren aldeko plataformako kideen iritziz "asko dago babesteko eta hobetzeko, besteak beste, arrisku larriaren dagoen lehen mailako arreta bermatzea". Horregatik, erakunde eta gizar-te mugimenduen ahotsa entzuna izan behar duela uste dute plataforman, "pertsona guztiondako osasun sistema publiko, duina, kalitatezkoa eta unibertsala eratzeko eta mantentzeko". Eskararen aldeko babes jasotzeko idatzia zabaldu dute, eragileen atxikimendua lortzeko asmoz.

Plataformatik gogorarazi dutenez, "finantza krisiaren aitzakiarekin gastu publikoa murriztu zutela eta, ondorioz, osasun publikoa nahikoa ukituta geldi-

tu zen: hutsik gelditutako lanpostuak ez ziren bete eta normalizat hartzen hasi zen plaza huts horiek plantillakoekin betetzea, horrek dakarren lan karga handiagorekin, arreta egokia eman ezinik ibiltzea eta itxaron zereendak handitzea". Plataformakoen iritziz, pandemiak agerian utzi du "osasun sistema publikoa indartu behar dela, edo lur jota geratuko da".

Burunda mendebaldeko osasun eremuan dagoen profesionalen faltaz gaztigatu dute. Nafarroako Gobernuak iraila erdialdean iragarri zuen bost mediku zuzendatzaile dagoeneko. Baina Altsasuko osasun etxean zenbat mediku dauden jakinarazten duten kartelak jartzen segitzen dute langileek. Egun batetik bestera mediku kopurua aldatzen da: lau, bi eta erdi, sei... Horregatik exijitu dute, "plantilla osatzea, %100ean martxan jartzeko".

Castillo Suarez euskaltzain oso izendatua

Euskaltzaindiak Nafarroako Parlamentuan egindako osoko bilkuran aukeratu zuen. Altsasuarrak Damaso Intzakoak eta Patxi Zabaletak izandako 9. aulkia hartuko du. Sarrera hitzaldia prestatzeko zortzi hilabete izanen ditu

ALTSASU

Ostiralaz geroztik Castillo Suarez Garcia altsasuarra euskaltzain osoa da. Hala erabaki zuen Euskaltzaindiak Nafarroako Parlamentuan egindako osoko bilkuran. Euskaltzainek Patxi Zabaleta euskaltzain emerituaren ordezkoa aukeratu beharra zuten eta, horretarako, bi hautagai zituzten: Paula Kasares eta Suarez. Aurrenak uko egin eta altsasuarrak izendatua izateko gehiengo osoa eskuratu zuen. Suarezek orain zortzi hilabete izanen ditu sarrera hitzaldia prestatzeko, eta epe berdina izanen du erantzuneko idazkia egin behar duen euskaltzainak berea prestatzeko. Gero, harrera ekitaldia egingen dio euskararen akademiak.

Altsasuarra euskaltzain urgazle izendatu zuten 2016ko apirilaren 29an. Joan den urtetik sustapen batzordean aritu da lanean. Suarezek Euskaltzaindiko 9. aulkia hartuko du, aurretik Damaso Intzakoak eta Patxi Zabaletak izan dutena. Altsasuarra bigarren euskaltzain oso sakan-darra da. Akademian halako ardura izan zuen lehenengoa Jose Mari Satrustegi Zubeldia arbazuarra izan zen. Bestalde, Jose Luis Erdozia Mauleon etxarriarra euskaltzain urgazlea da



Unai Hualde Iglesias, Castillo Suarez Garcia eta Andres Urrutia Badiola. PARLAMENTUA

2006ko maiatzaren 26tik. Euskalkien lantaldean ari da lanean 2005etik.

Parlamentariak

Nafarroako Parlamentuko presidente Unai Hualde Iglesias altsasuarrak eta hainbat parlamentarik harrera egin zioten Euskaltzaindiari. Hualdek azaldu zuenez, "Parlamentuan ordezkari izan zuten alderdi politiko guztiek euskara 'zaindu behar'eko ondasun' gisa ikusten dute. Desadostasunak egon badaude, baina euskarak aurrera jarraitzen

du eta hori, zalantzarik gabe, albeste ona da".

Hualdek euskaltzainak egiten duten lanagatik zoriondu zituen, eta "Parlamentuarekin elkarlanean jarraitzeko" eskatu zien, "gure hizkuntza sustatzen jarraitzeko. Euskaltzaindiaren mendeurrena zela eta, 2019ko abenduan Ganbera honek euskara babesteko eta garatzeko egin duzuen lana goraiatu eta balioetsi zuen, izan ere, zailtasunak zailtasun euskarak bere bidea egiten jarraitzen baitu. Eskerrik asko".

Ekaidarrek apaiza omendu zuten festetan

Herrian mende laurden egin du apaiz lanetan Jose Antonio Perez Baldak

EKAI

Igandeetan 11:45ean izaten dute meza Ekain. Irailaren 25ekoa berezia izan zen, ekaidarrek aukera baliatu zutelako apaiza omentzeko. Jose Antonio Perez Baldak 25 urte egin ditu herriko

apaiz gisa, eta hori aitortu nahi izan zion herriak. Horregatik, mezaren ondoren, herritarren izenean Patxi Uharte Garro kontzeju buruak hitza hartu eta emandakoagatik esker ona adierazi zion Perezi. Ondoren, adi-

neko herritar batek eta gazte batek koadro bat oparitu zioten. Talde argazkiaren ondoren, guztiendako otamena izan zen. Elizatik atera, eta presente zeuden guztiek talde argazkia egin zuten. Omenaldia despeditzeko otamena izan zen eliz atarian.

Perezek 86 urte ditu; haietatik 63, apaiz. Baraibarkoa da baina Iruñean bizi da, eta handik etortzen da Errotzen, Urritzolan (eliza soilik hiletetarako zabaltzen da), Etxarrenen, Ekain eta Zuhartzun meza ematera.



Apaiza oparitu zioten koadroa eskutan duela. UTZITAKOA



Mintzakideren irteera bat. ARTXIBOA

Mintzakide, euskara praktikatzeko, hastear da

Euskaraz hitz egin ohi dutenak euskaraz egin nahi dutenekin elkartzen dituen programa da

SAKANA
Hitz egitean norberak erabiltzen duen euskara hobetzeko, gehiago erabiltzeko, euskaraz aritzeko ohitura, trebetasuna eta erraztasuna lortu, jende berria ezagutu eta ondo pasatzeko, ingurune euskalduna sortu, indartu edo zabaltzeko... helburuak ditu Mintzakide programak. Konpromiso bakarra eskatzen die Mintzakidek parte hartzaileei: ordu-bete astean eta gutxienez ikasturte batean egotea, ez da besterik eskatzen. Talde txikietan elkartzen dira partaideak. Tabernan, paseoan, plazan, kirola egiten, dantzan... talde bakoitzak erabakitzen du zer ekimen egin nahi dituen. Guztia euskaraz aritzeko, euskaraz bizitzeko. Bi modutara parte har daiteke, euskara praktikatu (bidelaria) eta euskara praktikatzen lagunduz (bidelaguna). Sakanako Mintzakiden izena emateko: 600 482 024 telefono zenbakia (deitu edo Whatsapp mezua) edo sakana_mintza@ae.eus e-posta. Izen ematea dohainik da.

Aurten Mintzakiden izena emateko beste arrazoia Euskardialdia da, erabilera handitzeko ariketa soziala azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingen dena.



Nafarroako berdintasun teknikarien sareko kideak. Aurrean, eskuinean, Sakanakoa.

Landa eremuko emakumezkoen erronka

Landa Eremuko Emakumezkoen Nazioarteko Eguna dela eta, Berdintasun Zerbitzuek 'agenda politikoaren erdigunean genero berdintasuna' jarri nahi dute landa eremuan, 'landa eremuko emakumezkoen egoera hobetzeko jarduerak martxan jartzeko'

SAKANA

Hilaren 15ean, larunbatarekin, izanen da Landa Eremuko Emakumezkoen Nazioarteko Eguna. Horregatik, Berdintasun teknikaria duten Nafarroako toki erakundeek egunarekin bat egin dute, "landa eremuko emakumezkoen egiten duten lan guztia ezagutarazteko", azaldu du Oihana Gallo San Romanek, Sakanako Mankomunitateko berdintasun teknikariak. Azaldu duenez, "bizitzari eusteko eta beraien herriak zaintzeko borrokatu diren emakumezko guztiak hartu nahi ditugu gogoan, askotan isilean lan egin dutenak eta gutxietsiak izan direnak". Gallo emakumezko horiek egin duten lanaren gizarte, ekonomia eta politika funtzioa nabarmendu ditu, "gure herrien bizitza hobetzen aritu baitira emakumezko horiek".

Egun horretarako honako leloa aukeratu dute: *Nafarroako landa eremuko erronka feminista izanen da, edo ez da izanen.* Haren bidez teknikariek adierazi nahi dute "beharrezkoa" dela "Nafarroako landa munduan emakumezkoen dituzten behar zehatzei erantzunen dieten politika publikoak martxan jartzea.

Hori lortzeko berdintasuna, feminismoa eta genero ikuspegia landa garapenerako politika guztietan zeharka txertatu beharko dira", esan du Gallo. Horregatik, "landa eremuko emakumezkoen bizitza hobetu, jasangarriagoa eta bidezkoagoa izan dadin" toki entitateei manifestu bat bere egitea eskatu diete.

Adierazpena

Udalei aurkeztu zaien adierazpenean haiek emakumezkoen "bizi kalitatea hobetzeko lan" egitea eskatzen da, "haien aldarrikapen eta beharrei erantzunez". Hiru lehentasun ere

zehaztu dituzte. Batetik, emakumezko gazteak kontuan hartzea, "hiritara joan ez daitezten garapen pertsonalerako eta landa garapenerako aukeren bila". Bestetik, emakumezkoak norberaren eta besteen konturako lan merkatuan sar daitezten sustatzea, "landa eremuan hirietan baino zailagoa baita". Eta, azkenik, "pentsamolde aldaketa lortzea, emakumezkoen eta gizonen arteko rol banaketaren barruan bereizkeria egoerarik sor ez dadin eta landa eremuko emakumezkoen egoera pertsonala eta lan egoera hobetu dadin". Azaldu duenez,

"emakumezko horiek ikusezin bihurtu dira, eta baserriko lanez aparte, 'etxeko eta familiarako zereginak' ere haiek egin beharreko lantzat ikusi izan dira beti".

Landa eremuen etorkizuna "oparora, bidezkoa eta baketsua eraikitzeko funtsezko" jo dituzte: genero berdintasuna landa lurretan zeharka sartzea, emakumezkoen eta nesken ahalduntzea, emakumezkoen parte hartze soziopolitikoaren herriar aktibo eta boteretsuak izateko, lana eta bizitza pertsonala uztartzea, emakumezkoen elkartegintzari eta berdintasunaren alde lan egiten duten elkartei laguntzea eta baliabideak ahalik eta gehien optimizatzea.

Zikloa

Dokumental ziklo bat antolatuta dute, eta haren bidez "egungo egoera hobetzeko beharrak eta aldarrikapenak" plazaratuko dituzte, "landa eremuko emakumezkoen arazo zehatzak konplexuak eta heterogeneoak dira, eta antzeko erantzunak behar dituzte", azaldu du teknikariak. Nafarroako hamar herritan izanen dira emanaldiak, tartean Ihabarko herriko etxean. Lastailaren 13an, 19:00etan, *Gure lurra, gure etorkizuna* dokumentala ikusteko aukera izanen da. Lanak hainbat herrialdetako nekazaritza erakunde eta baserri ustiapen txikitako 80 bat elkarriketaren bidez egungo elikadura merkatuaren esku dagoela azaldu eta pertsona asko gose direla azaltzen da, horietako asko nekazariak. Emanaldiaren ondoren, Helena Bengoetxea zuzendariarekin hizketatzeko aukera izanen da.

Gurekin harremanetan jartzeko

618 882 675

GUAIXE

kaxeta

LIBURUEN DUNA

Hemen salgai!

fotokopia@kaxeta.net

628 542 519 | 948 460 477

KOLABORAZIOA

'Puente la Reina' edo 'Mendilarraina'?

JOSE LUIS ERDOZIOA MAULEON

Egun Puente la Reina gaztelaniar eta Gares euskaraz ezagutzen dugun Izarbeibarko herriak, bere sorreran, agian, beste izen bat izan du.

Nik, bereziki, gaztelaniako izendapenari erreparatuko diot hurrengo lerrootan eta saiaturko naiz, dokumentazio ezberdinetan oinarriturik, izendapen horrek ez ote duen euskarazko jatorria ere erakusten azaltzen. Badira antzeko beste horrelakoak gure geografian, "La Cuesta de la Reina" Iruñan bertan, esate baterako, "Larraina" eremura iparraldetik iristen den bideberri aldapatsua izendatzeko eta gainera, aldaparen amaieran bertan jatorriko toponimoaren izena mantentzen duen "Club Larraina" dago.

Honelaxe dator definiturik aipatu izena E(uskaltzaindiaren) H(iztegia)-n bere lehen azalpenean: "larrain 1 iz. Garia eta gainerako laboreak eultzitzen diren leku laua, lurra trinkoa eta, askotan, lauzatua duena."

Eta eremu egoki edo aproposa delakoan nago egungo Puente la Reina edo

Gares herrikoa "larrain" izenarekin hura izendatzeko. Garia ekoitzi den eremuetan derrigorrean behar izan dira larrainak eta, bestalde, herriaren euskarazko izenak ere, agian, horretara garamatza: *gara* + *-zu* > *garaz* (apokopatua) > *garez/gares*, beharbada. EHn ere honelaxe dator 'gara' izena: "Belar landareetan, erdian ateratzen den zurtoinarekin segida, loreari eusten diona".

Gares eta larrain izenez osaturikoa, bi herri, orduan, bata bestearen ondoan? Erdi Aro Betean, ondo-ondoan zeuden herrixkak nonahi. Aranatzan, adibidez, kilometro soilean hiru bizileku gutxienez egungo Etxarri Aranazko hegoaldeko dermioan (*Mugarratx, Lazkotz eta Erdozia*); kilometro eskasean, Arbizu eta Unanuren artean, beste hiru herrixka zeuden XIV. mende erdialdera arte: *Maiza, Mundiñano eta Ondatz*. Eta horrela ere bai Burundan, Arakilen eta beste eremu askotan.

Baina, noan hasieran esandako bidera atzera berriz eta errepara diezaioan egungo gaztelaniako izendapenari, Puente la Reina.

Ikusi dugu Iruñan bertan badela beste kasu bat, zeinetan "La Reina" gaztelaniakoak, euskarazko "larraina" duen jatorri. Honek orduan ez liguke teoriaren mailan behintzat, arazo gehiegi sortuko. Baina dokumentaziora joaz, hara non XII. mendean erdialdean (1153), Xerif Aledris geografo arabiarren izenburu luzea duen liburu bat idatzi zuen eta liburu horretan aipaturik ageri da, nire ustean behintzat, hizpide duen herriaren izena. Aipamen horixe, 1799ko ondorengo liburuan ageri da: *Descripción de España de Xerif Aledris conocido por el Nubiense, con traducción y notas de Don Josef Antonio Conde, de la Real Biblioteca de Orden Superior. Madrid en la Imprenta real por D. Pedro Pereyra, impresor de Camara de S. M. MDCCXCIX...*

Dokumentu hau, lehenago Pamplona izen nagusia aztertzerakoan (Diario de Noticias de Navarra, 2020-08-31) erabili nuen eta honelaxe nioen orduan, kasu hartan Bamblona toponimo nagusia beltzez idatzirik eta oraingoan, aldiz, hizpide duguna: "Bertan, izenburuaren hasieran dioen moduan, Espainian zehar bidaiatzeko deskribapena eta toki esanguratsu batetik beste batera joateko zenbat egun behar diren zehazten du. Eta, 121 orrialdean, horrela dio: "... un día; y de ella á Medina Burgos dos jornadas; y de Medina Burgos á Medina Naghera un día, y es ciudad poblada; y de ella á Castilla un día; y de Hisn-Castila á Hisn-Mont-Larina un día; y de él á Medina Bamblona un día;..."

Ikusten denez, hirien arteko ibilbideak (dokumentuak hiriak *-medina-* eta lurralde bateko gazteluak *-hisn-* bereizten ditu) zenbat egunetan egin daitezkeen aipatzen digu liburuak: Burgosetik Najerara; Najeratik Lizarrara ('Castila' hori Estella delakoan nago); Lizarratik Garesera ('Mont-Larina', aldiz, Mont/Pont La



WIKIMEDIA

Reina); Garesetik Panplonara..."

Mendi + larr(a)in + -a izatekoan bere osagaiak, bigarrenaren diptongoa monoptongaturik (/ai/ > /i/) ageri da dokumentu honetan eta horixe bera gertatu da Lizarraldeko beste zenbait eremutan ere.

Patxi Salaberrik "Arabako mugako nafar hizkeren inguruan" artikuluan, Eulaten *Larrinkieta* eta Narkuen *Zaldalarrina* (1686, egun *Zalagarrin*) toponimoen berri eman zigun. Eta jarraitu zuen esanez Landucchiren *DLC* aipatuz, alde horretatik, Ameskoa eta Lanarekin zetorrela bat (cf. "era de trilla" larrina).

Bestalde, Uxueko hizkuntzalariak ondorengo toponimoak ere izan zituen kontuan Lizarra inguruan: *Larrimpe* (1603) Iguzkitzako Morentinen eta dokumentazioan behin *Larrinchi*pe moduan ageri den Iguzkitzako *Larranchipi* ere bai. Baditugu, beraz, dokumentaturik osagai bereko izen monoptongatuak eta ez oso urruti artikulugaiaren eremutik.

Aledris-en dokumentuko azken osagaia aztertutik, lehenarekin eta bigarrenarekin jarraituz,

gogoratu *hisn-*ek arabieraz gaztelua adierazten duela, eremu geografiko bateko gaztelua, horixe babesteko eginkizuna zuena. Eta bigarrenak, aldiz, arazoiketa honen bidea oztotpatzen du egungo ikuspegitik, gehiago espero zitekeelako "pont" eta ez "mont" bertan agertzea.

Ez dugu ahaztu behar, gainera, hegoaldeko ondo-ondoan duela hasierako osagai berbera duen Mendigorria herria.

Mendigorriaren aldamenekoa ote, orduan, *Mendilarr(a)ina* eta ez Puente la Reina? Bigarren osagaiarekin, *larraina* > *la Reina* aldaketa ez dela lehen kasua izan ikusi dugu eta, gainera, euskal hizkera askotan ere, Aranatzan esate baterako, *ai* > *ei* diptongo itxiera egun suertatzen da: *larrein*. Eta menditik zubira jauzia, berriz, eraikuntzak hartutako garrantziaren eta ikusgarritasunaren ondorioz, seguru asko. Egun horren ikusgarri izaten jarraitzen duen zubia eraiki baino lehenagoko izena izan zitekeen, *Mendilarr(a)ina*.

Honen guztiaren arabera, orduan, *Mendilarrainako* gaztelua adieraziko liguke *Hisn-Mont-Larina* horrek?

DUELA 25 URTE...



Elizako organoa konpontzen

Hernaniko Usabiaga anaiek lau hilabete zeramaten Lakuntzan. Organoa garbitzera etorri ziren, aurretik elizan egindako lanengatik musika tresnan hauts asko sartu zelako. Horretarako, hura desmuntatu zuten eta zurezko pieza guztiak pipiak janda zeudela ikusi zuten. Konpondu zitezkeen piezak konpondu edo, bestela, berriak egin zituzten. Gainera, lehenengo hauspozko motorraren orde, motor mekanikoa jarri eta organoa afinatu zuten.

Altsasu epaiari helegitea jartzea aztertzen ari da

Mank-en aurrekontuari udalak errekurtsoa epez kanpo aurkeztu zuela 'interpretagarria' da

ALTSASU

Altsasuko Udalak Sakanako Mankomunitatearen aurrekontuari helegitea jarri zion, uste duelako egin beharreko ekarpenak ez direla egokitzen Mank-en estatutuetan aurreikusitakoarekin eta aurten ordaindu beharreko kuotaren igoera "behar bezala justifikatuta ez" dagoela uste du.

Auzitegiak atzera bota du udalaren gora jotzeko errekurtsoa epez kanpo aurkeztu zelako. Altsasuko alkate Javier Ollo Martinezek nabarmendu duenez, "epaitegiak oso interpretagarria den epe kontu bat aipatzen du helegitea ez onartzeko. Izan ere, aurrekontua onartzeko unean epea zenbatzen hastea ezartzen du, baina errekurtsoa Altsasuko Udalak aurkeztu du, ez Mank-eko batzarreko kide batek. Horregatik errekurtsoa Mank-en aurrekontuaren behin betiko onarpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero hasten den epe barruan aurkeztu zen".

Olok esan duenez, "epaileak ez dira udalak mahaian jarritako gaiaren mamia aztertzen; ez dira ez balioesten ezta ezesten ere helegitean azaldutako arrazoiak". Alkatearen iritziz, "aukera ona zen hirugarren batek, Nafarroako Administrazio Auzitegiak, udalak aurkeztutako alegazioak baloratzeko. Alegazioek Mank-en 2022ko aurrekontuaren legezotasuna zalantzan jartzen dutelako". Olok azaldu duenez, "udala bere zerbitzu juridikoekin aztertzen ari da auzitegiaren ebazpenaren kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztea". Aldi berean, jakinarazi duenez "udalak Mank-ekin dituen ordainketak beti bezala beteko ditu, arreta jarritz Mank-en programa bakoitzarendako ordaindutako zenbatekoak justifikatuta egoteaz, bai eta zertan erabili diren azalduta egoteaz".

Marka, kalitate ziurtagiri izendapena lortzeko

Adierazpen Geografiko Babestua izendapena eskuratzeko bidea hasi du 'Nafarroako Txistorra' markak; txistorrendako Europako kalitatezko ziurtagiria eskuratu nahi du. Sustatzaileen artean Arbizu Hestekiak dago

ARBIZU

Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuan Nafarroako Txistorra marka kolektibo berria aurkeztu zuen ostiralean (gaztelaniaz bi bertsio daude ch-z eta tx-z idatzita). Itziar Gomez Lopez kontseilariak azaldu zuenez, "marka berria Nafarroako kalitatezko gainontzeko markei batu zaie. Eta Reyno Gourmet zigiluaren parte bihurtu da. Txistorra kalitatezko figura gisa egiaztatuko duen Adierazpen Geografiko Babestua lortzeko Europako tramitea abian jarri dira".

Marka sortu eta Adierazpen Geografiko Babestua (AGB) Europako izendapenak lortzeko aurreneko pausoa Nafarroako zortzi enpresa txistor ekoizleak eta Nafarroako Harakinen Gremioak eman zuten: ekoizleen elkarte sortu. Aurrenekoen artean Arbizu Hestekiak enpresa dago. Hango arduradun Ainara Goikoetxea Arbizuk azaldu duenez, "izendapenak produktuaren eta Nafarroaren arteko lotura adierazten du. Txistorrak hemen historia eta izena du, eta ezaugarri berezi batzuk. Hori guztia eta bertako produktua babesteko da izendapena".

Goikoetxeak gaineratu duenez, "produktuak zigilu bat eramateak esan nahi du atzean kontrol bat dagoela, bermea da. Bai bertako merkatura begira, bai atzerrira ere". Ideia horrekin bat egin du Gomez: "ziurtagiriak inportatzaileen txistorrarekiko interesa areagotu baino ez dute eginen, nazioarteko ikuspegi handia duen kalitatezko marka baita". Kontseilariak jakinarazi zuenez, kalitate bereziko nekazaritzako elikagaien Amerika merkaturako hurrengo azoketako batean parte hartuko du.

Elkartea

Sortutako elkarteari dagokionez, Goikoetxeak jakinarazi duenez, edozein txistor ekoizle egin



Ainara Goikoetxea Arbizu, gorritz, kontseilariaren ondoan; atzean Patxi Goikoetxea.

"PRODUKTUAK ZIGILU BAT ERAMATEAK ESAN NAHI DU ATZEAN KONTROL BAT DAGOELA, BERMEA DA"

daiteke kide, bai enpresa (zortzi, oraingo) bai harakin. "Baldintza da nafarrak izatea eta ekoizten duten txistorrak zehaztutako ezaugarriak izatea, eta, horretarako, inspektzioa pasatu behar da". AGBko txistor batek zein ezaugarri izan behar dituen elkartekideek zehaztu dituzte. "Horretarako, harakinen Nafarroako txistor lehiaketako oinarriari erreparatu genion". Goikoetxeak azaldu duenez, "ekoizleek Nafarroako Gobernuaren Intia enpresaren kontrolak eta autokontrolak pasa ditugu izendapenaren baldintzak betetzen dituzten jakiteko". Jakinarazi duenez, "lehen eta orain berdin lan egiten dugu. Aurretik ere eskatutako ezaugarriak betetzen genituen". Aurreratu du Reyno Gourmet eta Nafarroako Txistorra zigiluak dituzten lehen txistorrak bi aste

barru merkaturatzea espero dutela.

Kalitate zigilua lortzeko asmoa sektorearen aspaldiko helburua zela ere azaldu du arbizuarrak: "2006. urtean enpresa ekoizleak eta Nafarroako Harakinen Gremioa produktuaren kalitate-marka bat sortzen saiatu ginen lehen aldiz, baina ez zuten aurrera egin". Gaineratu duenez, 2009. urteaz geroztik, Gremioa Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean aritu da bertako produktua hori aintzatesten eta garatzen lagundu duten azterlanak egiten. 2019an, Intia sozietate publikoaren eskutik, sektoreak hasitako prozesuari ekin zion berriro, eta elkarte berriro aktibatu zen. Txistorra egiten duten Nafarroako enpresa nagusiek eta Gremioak berak osatzen dute elkarte, harategien ordezkari gisa.

1,5 milioi kilo baino gehiago

Sortu berri den elkarteko zortzi enpresen artean 2021ean 1,3 milioi kilo txistor ekoiztu zituzten. Kopuru horri Nafarroako harategietan ekoiztutakoa gehitu behar zaio: 250.000 kilo inguru.

XII. TXISTOR EGUNA
ARBIZU
2022
URRIAK 9

URRIAK 8, LAPUNBATA

- 17:30 HERRIKO HAUREN DANTZAK
- 19:00 GARUMONTXIO ETA JOSELONTXIO PAILAZOEN PETITXOU IKUSKIZUNA

URRIAK 9, IGANDEA

- 10:00 DIANAK ARBIZUKO FANFARREAREKIN
- 10:30 AZOKAREN IREKIERA
- 11:00 NAFARROAKO TRIKILARIEN BILKURA
- 11:30 XII. PINTXO LEHIAKETAREN HASIERA
- 13:00 HERRIKO ABESBATZA
- 13:30 PINTXO LEHIAKETAREN SARI BANAKETA
- 14:30 HERRIKO DANTZARIAK
- 15:00 AZOKAREN ITXIERA
- 16:45 NAFARROAKO TRIKITIXA ESKOLEN V. JAIALDIA
- 18:30 XAIBOR DISKO FESTA

Gozman zehar:

- Arbizu eta pintxoak puzan.
- Azoka Kala Nagusian
- Txistorekin produktuen erakusketak, txipetak, txistorekin, ukandak.
- Arbizuko argazki zaharren erakusketak gole guztian zehar.

San Migelen Europako Sareaz Parlamentuan

Aralarko Deun Mikel Goiaingearuaren Kofradia San Migelen Gune eta Bideen Europako Sareko partaide da, eta Europako Kontseiluak kultura ibilbidetzat onar dezan nahi dute. Helburua da kultura, monumentu eta erlijio ondarea, turismo jasangarria eta bertako produktuak sustatzea. Ibilbide bilakatuz gero, Europako funtsak eskuratzeko aukera lukete, tokiak eta bideak egokitu eta sustatzeko. Maiatzean espero dute onarpena.

Horren eta santutegian egiten ari diren lanen berri emateko Nafarroako Parlamentuko lehendakari Unai Hualde Iglesiasekin elkartu zen kofradiako ordezkariak asteartean: Joxe Mari Usarroz Razkin, Mikel Garziandia Goñi eta Juan Carlos Recio. Hualderi proiektuaren berezitasunak azaldu zizkioten. "Praktikan, Santiagoren eta arku atlantikoaren arteko lotura indartzea ekarriko luke, eta, haren kokapen estrategikoa kontuan hartuta, San Migel santutegiari bultzada ematea; izan ere, hiru urte darmatzagu santutegia eraberritzen, haren erakargarritasuna optimizatzeko. Aurten museoa ofizialki irekitzea espero dugu", adierazi zuen Garciandiak. Hualderi taldeak informatu eta parlamentura bisita egitea eskatu zioten.

Euskarazko kultura eta aisialdi eskaera berretsi dute

Altsasuko aisialdi eta kultur eskaintza euskalduntzea ezinbesteko jotzen du Kultura Euskaraz, Ainguratu Gura ekimenak. Bere kideen iritziz, euskarazko aisialdia ere behar baita euskaraz bizi ahal izateko. Altsasun horretarako zailtasunak daudela nabarmendu dute eta gabezia horren adierazle liratekeen hainbat testigantza jaso dituzte. Zabaldu duten horietako bat Argentinatik etorritako altsasuar batena da, bi ume dituen, AEKn euskara ikasitakoa eta familian euskaraz aritzeko eta bizitzeko gai dena.

Ekimenak jasotako lekukotza horren arabera altsasuar horri "sorpresa" batek "kezka handia" eragin zion: "herriak eta, bereziki, kultur etxeak euskaraz duen eskaintza oso murrizta. Sinesgaitzat iruditzen zait. Hizkuntzari muzin egiteak gazte erdalduak heztea eta hizkuntza gutxiuari kalte eragiten zaio, besteak beste". Berak, eta bera seme-alabekin batera, herrian "euskarazko kultur eskaintzaz gozatu nahi" lukeela adierazi du, "eta hori Altsasun ez da erraza izaten ari". Lekukotzetan oinarrituta, ekimenak bere eskaerak berretsi ditu: udalak euskarazko kultur eskaintza handitzea eta eskolaz kanpoko jardueretan euskara bermatzea.

Bakaikuk, atzera ere, denda du

Bakaikuarrak zazpi hilabete eta 7 egun, guztira 220 egun, dendarik gabe egon ondoren, herrian bertan erosketak egiteko aukera dute atzotik. Maldaik kaleko 3. zenbakian dago denda

BAKAIKU

Aste osoa prestaketetan eman ondoren, asteazken arratsaldean izan behar zuen irekierak. Baina azken uneko kontuengatik atzo goizera atzeratu zen irekiera. Publikoari atek zabaldu aurretik ogi banatzailea iritsi zen aurrenekoz, kutzako informatika programari buruzko ikastaro azkarra jaso zuten dendariak, hedabideak ere handik zebiltzan. Han zeuden ere Bakaikuko herri dendako talde eragileko kide diren Saioa Zelaia Anso, Lander Urrieta Lazkoz eta Erkuden Zornoza Arregi. Proiektua zerotik eraikitzen ikusi dute. Atzo pozik egoteko bi arrazoi zituzten. Pozik, denda zabaltea lortu dutelako. Pozik, ehun bazkide lortzeko erronka jarri eta 135 lortu dituztelako (Bakaikuk 330 biztanle ditu). Talde eragileko kideek gaztigatu dutenez, oraindik ere Bakaikuarrok herri kooperatibako bazkide egiteko aukera zabalik dago, horretarako dendan bertan eman daiteke izena. Sarrera gisa 60 euro ordaindu behar dira, eta ez dago bestelako kuotarik.

Denda zabaldua ere, talde eragileko kideek ideien eltzea sutan berotzen dute. Haietakoren bat ondatukoan handik zerbait aterako da. Bitartean, gaur 19:00etakoan dute burua. "Dendaren zabalteak ospatzea meze du!" esan dute. Herri guztiari auzatea eskainiko dio kooperatibak. Herriko egun handietan bezala, ardoa zilarrizko katiluetan banatuko da. Eta Maldaiko larraineko giroa trikitilariak alaituko dute.

Bakaikuko dendaz arduratuko diren bi dendariak elikadura establezimendua 09:30etik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era izanen dute zabalik astegunetan. Larunbatetan, berriz, goizeko ordutegia izanen du bakarrik dendak. Ordutegi horretan atea maiz zabalduko dela espero dute.



Arantza Zabala Lakuntza eta Edurne Rivera Elso dendako pasabide batean.

"Edozein erosketa egin dezakezu"

EDURNE ETA ARANTZAZU DENDARIAK

Lizerratar bat eta etxarriar bat dira Bakaikuko dendan lanean ari direnak.

Zer moduz prestaketak?
Arantza. Oso "azeleratuta", baina oso ongi joan dira. Laguntza handia izan dugu. Hasiara guztiak bezala, urduritasunarekin, baina ongi.

Dendetan eskarmentua duzue?
Edurne. Nik loradenda batean lan egin dut, elikadura dendetan ez. Baina moldatuko naiz.

A. Bai, ni ibilia naiz halako dendetan.

Zer denda mota opatu duzue?

A. Oso denda polita. Gustuarekin jarrita dago.
E. Denetarik dago. Edozein erosketa egin dezakezu. Bakaikutik atera gabe despentsak betetzeko modua ematen du.

Zer jende etorriko zaizue erostera?

A. Denetarik etorriko dela uste dut. Jende heldua, gaztea... Haurrak etortzea ere espero dugu, hemen litxarrerria pila baitaude. Beraz, denetarik jendea izanen dugu.

Nola antolatuko zarete lan egiteko?

E. Aste batean batek goizez lan eginen du eta arratsaldez besteak. Eta hurrengo astean lan txandak aldatuko ditugu.

Zer ekarriko dio dendak Bakaikuri?

E. Denetarik. Jendearendako ona da denda egotea, gainera denetarik du. Ez dute Altsasura edo Etxarrira joan beharko. Autoa ez dute hartu beharko, gasolina garesti dago. Denda oso aproposa da herriarendako.

A. Bizi pixka bat ere emanen dio Bakaikuri.

C.A. OSASUNA VS VALENCIA C.F.

URRIAK 7, OSTIRALA

21:00-23:00

EUSKALERRIA IRRATIAREN BIDEZ

euskalerrairratia

107.3 FM

beleixe

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS

FESTAK

ARBIZU

TXISTOR EGUNA

URRIAK 8 Larunbata

17:30 Herriko haurren dantzen emanaldia.
19:00 Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoan *Petitxou* ikuskizuna.

URRIAK 9 Igandea

10:00 Dianak Arbizuko fanfarrearekin.
10:30 Azokaren irekiera.
11:00 Nafarroako trikitilarien bilkura.
11:30 XII. Txistor pintxo lehiaketaren hasiera.
13:00 Herriko abesbatza.
13:30 Pintxo lehiaketaren sari banaketa.

14:30 Herriko dantzariak.
15:00 Azokaren itxiera.
16:45 Nafarroako Trikitixa Eskolen V. Jaialdia.
18:30 Xaibor disko festa.

ALTSASU

FERIAK

URRIAK 14 Ostirala

18:00 Etxafuegoa.
Haurrendako jolasak, Foru plazan.
19:00 Euskal Mendizaletasunaren XXVI. Gala, lortia kultur gunean.
Altsasuko Mendigoizaleak antolatuta.
19:00 Erremonte jaialdia, Burunda frontoian.
Oriamendik antolatuta.
19:30 Txokolatada, Foru plazan.
Altsasuko peñek antolatuta.

200 kilo txistorra banatuko dira Arbizun

Arbizuko egun handietako bat izanen da igandean, urriaren 9an, Txistor eguna ospatuko dutelako. Udalaren txistor pintxoaren postuan, txistorra Arbizuko ekoizleena izanen da. Bestetik, plaza inguruan eta kale nagusian egonen den azokan artisau eta produktoreen 30 postutik gora egotea espero dute. Horrez gain, bolilloa egiten, txistorra egiten eta tripota egosi eta pintxoak saltzeko postuak ere egonen dira. Lehenengo edizioetako argazki erakusketa antolatu du udalak ere. Ospakizunak larunbatean hasiko dira, eta, beraz, Kale Nagusia eta Plazan trafikoa itxita egonen da. Bertan ez aparkatze-ko eskatu du udalak.



ARTXIBOA

ARBIZU Nafarroako Trikitixa Eskolen V. Jaialdia izanen da igandean Arbizuko Txistor egunean.



UAGA

UHARTE ARAKIL Larunbatean herri bazkaria egin zuten plazan, Herri Mugimenduak antolatuta.



ETXARRI ARANATZ Sakanako artzainen gazta txapelketan 4 gazta aurkeztu ziren eta txapela Albi gaztandegiak lortu zuen.



OLAZTI Igandean, Munduko arrozak izan zen Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak, Sakana Harrera Harana eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatuta eta Olaztiko Udalaren laguntzarekin.

bertako
igogailuak | ascensores

REKIN BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA
943 903 450
BIZKAIA
946 523 935
ARABA
945 712 822
NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA

BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 7

ALTSASU Literatur jaialdia.*Mi pueblo lee* literatur jaialdien landa sarea.

18:00 Izaskun Etxeberria, Castillo Suarez eta Alberto Barandiaran tokiko idazleen mahai ingurua Victoria Álvarez Mussetik gidatuta, euskaraz.

18:50 Atsedendia.

19:00 Mikel Santiago idazlearekin topaketa.

ALTSASU Gazte agenda.

Futbolin txapelketa.

18:00etan, *Intxostiapunta gazte gunean.***ALTSASU Jardunaldiak.**XIX. Mikologia Jardunaldiak: Irantzu Garcia Altsasuko Mikologia Elkarteko kidearen *La alimentación de los hongos, factor clave para el medio ambiente* hitzaldia.18:30ean, *lortia kultur gunean.***BAKAIKU Mustutze ekitaldia.**

Bakaikuarrok herri kooperatibaren dendaren mustutze ekitaldia musikarekin eta abarrekin.

19:00etan, *dendan.***ALTSASU Altsasuko Gaztearearen 32. urteurrena.**

17:00 Haurren txokoa, plazan.

18:30 Txokolatada, plazan.

19:30 Pintxopotea, gaztetxean.

21:30 Merienda afaria, gaztetxean.

22:00 Julen Mago ikuskizuna, gaztetxean.

LARUNBATA 8

ALTSASU Altsasuko Gaztearearen 32. urteurrena.

10:00 Kalderete txapelketaren hasiera, plazan.

14:30 Bazkaria, plazan.

17:30 Jolasak.

19:00 Skapaie elektrotxaranga.

21:30 Magrak, gaztetxeak.

22:00 Joxpa erromeria, gaztetxean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

La invitación gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Igandea 9 19:30**La vida padre gaurkotasunezko filmaren emanaldia**
Osteguna 13 19:00
Ostirala 14 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Ali y Avan zineforum filmaren emanaldia
Igandea 9 19:30**El radioaficionado zineforum filmaren emanaldia**
Osteguna 13 19:00

01:00 DJ Kokonut.

ITURMENDI Magia ikuskizuna.

Txan Magoaren ikuskizuna.

11:00etan, *plazan.***OLATZAGUTIA Automobilismo proba.**

XL. Urbasako igoera.

13:00etatik aurrera, *Urbasako portuan.***ALTSASU Sarean euskaraz.**

Musika aplikazioen ikastaroa.

18:00etatik 20:00etara, *Intxostiapunta gazte gunean.***ALTSASU Antzezlan.**Christy Hall idazlearen *La Coartada* antzezlanaren emanaldia Maria Castro, Dani Murial eta Miguel Hermoso antzezleekin; Bernabé Ricok zuzendatutakoa.19:30ean, *lortia kultur gunean.*

IGANDEA 9

IRAÑETA Mendi martxa.

Euskal Herriko erdigunera martxa. Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundeak, Iratxo elkarteak, Euskal Mendizale federazioak, Sakanako Mendizaleak taldeak eta Nafarroa Berriz Altxa! egitasmoak antolatuta.

09:30 Irteera, Irañetako Bordan.

11:30 Ekitaldia, erdigunean.

13:30 Pintxopotea, Irañetako Bordan.

14:30 Bazkaria: Lakuntzako baba txikiak, Irañetako Bordan.

ETXARRI ARANATZ Erakusketa.

Ziza eta landaren erakusketa. Domingo Garciandia eta Fernando Goyari aitortza eta Bixente

**IRURTZUN Nueve fotopoema erakusketa.**Urriaren 9ra arte. *Pikuxar tabernan.*Garcandia *Barze* eta Jose Luis Eseverriri omenaldia eginen diete. Pintxo dastaketa. *Goizean, plazan.***IRURTZUN Antzerkia.***Argako Erregina* antzezlanaren emanaldia, Lorena Arangoa antzezlearekin. Estefania de Paz antzerkigileak sortutako lana. 19:00etan, *kultur etxean.***ALTSASU Elkarretaratzea.***Euskal preso eta iheslariak etxera.* 20:00etan, *plazan.*

ASTELEHENA 10

ALTSASU Elkarretaratzea.Pentsio duinen alde. 12:00etan, *Zumalakarregi plazan.*

OSTEGUNA 13

IHABAR Film dokumentalaren emanaldia.*Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna: Gure lurra, gure etorkizuna* dokumentalaren emanaldia eta Helena Bengoetxea zuzendariarekin solasaldia. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta. 19:00etan, *Herriko etxean.*

OSTIRALA 14

ETXARRI ARANATZ Bertso afaria.Bertso afaye Andoni Egaña eta Jone Uria bertsolariekin. Karriestu elkarteak antolatuta. 21:00etan, *Karriestu elkarte.*

Bazkide

Zozketa



IRAILEKO SARIAK

1. SARIA

Iñaki Miranda Mauleon (Etxarri Aranatz)

2. eta 3. SARIAK

Francisco Javier Arratibel Zabala (Etxarri Aranatz)
Castillo Suarez Garcia (Arbizu)
Aitor Azpiazu Etxarri (Etxarri Aranatz)







EZ IZAN BURUGOGORRA!

ZORIONDU MAITE DUZUN HORI

zorion@guaixe.eus

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Etxarri Aranazko Udalak gaztetxokorako begirale lan poltsa: Udalak hautapoben bidez hiru pertsona kontratatu nahi ditu ikasturte honetan gaztetxokorako begirale izateko eta lan poltsa sortzeko. Udak gaztetxokoa 11 eta 16 urte arteko gazteak hartzen ditu azarotik maiatzera arte, larunbatetan 17:00-21:00 eta igandetan 17:00-20:30. Deialdian parte hartu nahi dutenek dokumentazioa udalean aurkeztu beharko dute, aurrez aurre 10:00-14:00 edo egoitza elektronikoa <https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/info.0->, epea urriaren 14an amaitzen da.

GALDUTAKOAK/OPATUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Erlouja Etxarri Aranazko parkean: Ume baten erlouja parkearen ondoan opatu dute. Tom eta Jerry ageri dira erlojuan, BELEIXE IRRATIAN dago jasotzeko.

IKASTAROA

Euskaraz a(h)oskatzen ikastaroa: Saio teoriko-praktikoa izango da, irakasle, esatari eta oro har ahozko hizkuntzan interesa dutenentzat. Urriaren 20an Euskaltzaindiaren Iruñeko ordezkari burutuko da (Conde Oliveto 2.zbkian).

Izena emateko 948 223 471 telefonora deitu edo nafarroaordez@euskaltzaindia.eus helbidera idatzi, epea urriaren 13an amaituko da. Ohar moduan, gehienez 12 laguneko talde txikian emango da prestakuntza hau, izen emate hurrenkera izango da kontutan.

Sarean Euskaraz gazteei zuzendutako ikastaroak: Nafar Gobernuak Sarean Euskaraz ekimenaren barruan gazteei zuzendutako ikastaro hauek antolatatu ditu; Altsasun, urriaren 8an, 18:00-20:00 Musika sortzeko eta nahasteko aplikazioak Intxostiapuntan eta Arbizun urriaren 15eran, 11:00-13:00 3D inprimagailuak Liburutegian.

LEHIAKETA

Iruñeko Udalak Egile Berrientzako XXXII. Euskarazko Literatur Lehiaketa: Egileek lan bana aurkezten ahalko dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librean izanen dute eta euskaraz idatziak izan beharko dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak. Sari modalitateak: poesia (lanak gutxienez 200 bertso lerro izan behar ditu) eta narrazioa (lanak gutxienez 15 orri izan behar ditu Arial letra mota, 11 tamainakoa, tarte bikoitzaz). Lehen saria 2500 eurokoa eta bigarren saria 1000 eurokoa izango dira modalitate bakoitzeko. Epea urriaren 28an amaituko

da. Parte hartu nahi baduzu www.pamplonacultura.es web orrian dagoen inprimakia bete behar da. Informazio gehiago web orri horretan ere.

OHARRAK

Odol emateak Irurtzen: urriaren 13an, 16:45tik 20:30ra, Osasun etxean.

Aralarko San Mixel Santutegiko beharrak ikusita: erabiltzen ez den eremu bat egokitu nahi da santutegia bisitatzeko dutenentzat, eta bertan harrera lekua, kontrolgunea, denda eta komunak, baita interpretazio zentro berria eta kofradiaren egoitza ere. Zaharrentzako proiektuan lagundu nahi duenak ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrantean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortzen egitean zati bat bueltatuko diote.

Konposta eskuragai: Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du edonor har dezakeela konpost Arbizuko UtzubarEKOguneko konpost plantatik. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daiteke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramatea gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eraman daitezke.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Leyre Marquez Pajares**, irailaren 28an Altsasun
- **Laioa Zubieta Balda eta Galder Zubieta Balda**, urriaren 1ean Etxarri Aranatzen


HERIOTZAK

- **Eugenio Olosa Beriain**, irailaren 27an Lizarragan
- **Jacinta Claro Santano**, irailaren 29an Altsasun


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 7




Larunbata, 8



Igandea, 9



Astelehena, 10



Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:
24,20 euro
948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarki bakarrak iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarki Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.



OROIGARRIA



Benigno Mendia Goikoetxea



VII. urteurrena
(Urriaren 10ean)

"Gure bihotzetan zaude"

Zure familia eta lagunak
Urdaian

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 📧 @Grupolrache
- 📺 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

FUTBOL PREFERENTEA

4. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Etxarri Aranatz - Lagun Artea	3-1
Salesianos - Altsasu	0-2

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Universidad de Navarra	10
4	Altsasu	9
7	Etxarri Aranatz	7
15	Lagun Artea	2

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEA, URRIAK 9

16:30	Lagun Artea - Lezkairu (Zelai Berri)
17:00	Altsasu - Etxarri (Dantzaleku)

Bigarren derbia, Dantzalekun

Etxarri Aranatzek bigarren derbia jokatu du jarraian. Aurreko asteburuan Lagun Artearen kontra irabazi zuen etxean, eta animotsu daude etxarriarrek. Igandean Altsasu izango dute aurkari, Dantzalekun. Altsasuarrek ere ugozoan daude, Salesianos kontrako garaipenaren ondotik, eta bolada onean dauden bi taldeen derbi borrokatua espero da.

Lagun Arteak Lezkairu hartuko du

Talde guztiz eraberritua du Lagun Arteak, eta gazte lakuntzarrei kategoria berriaren tamaina hartzea kosta egiten ari zaie. Jokoa dauden hiru puntuak lortzea sekulako bultzada litzateke.

PREFERENTEA EMAK.

2. JARDUNALDIKO EMAITZA

Lagunak - Altsasu	9-2
-------------------	-----

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENT. 1. MULTZOA

1	Burladés	6
9	Altsasu	0

HURRENGO JARDUNALDIA

URRIAK 30

16:30	Altsasu - Marcilla Aurora (Dantzaleku)
-------	--

Gol zaparrada latza

Altsasuk gol zaparrada ederra jaso zuen. Hurrengo arerioa Marcilla izanen da.

FUTBOL ERREGIONALA

3. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu B - Gazte Berriak	1-2
---------------------------	-----

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	Arrotxapea B	9
5	Altsasu	6

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATA, URRIAK 8

19:30	Valle Aranguren - Altsasu (Aranguren)
-------	---------------------------------------

Bolada onaren etena

Gazte Berriak atzaparkadaren ondoren, Altsasuk Arangurengo hiru puntuak nahi ditu.

"Lau eta Erdiko txapelaren lehian aritu nahi dut"

JOSEBA EZKURDIA GALARRAGA PILOTARIA

PILOTA Igandean Mariezkurrenarekin batera CaixaBank Mastersa irabazita, udaren balantze ona egin du eta sasoi betearen iritsi da Lau eta Erdira, txapelagatik gogor orrokatzeko prest

Maider Betelu Ganboa ARBIZU

Astehenean aurkeztu zuten, Bilbon, Lau eta Erdiko Eusko Label Txapelketa. Asteburu honetan hasiko da, eta final zortzirenak egongo dira jokoan. Partida hauetako irabazleak sailkatuko dira datorren asteburuan hasiko den final laurdenen ligaxkarako. Joseba Ezkurdia Galarraga arbizuarra, talde burua denez, final laurdenetan sartuko da lehian.

Lau eta Erdia hastear dago eta sasoi betearen iritsi zara txapelketara. Gogotsu al zaude?

Oso. Hilabete pasatxo daramat lau eta erdia entrenatzen, fisikoki entrenamendu gogorak egiten. Berehala gogortasun hori pixka bat jaisten hasiko naiz, txapelketara puntu-puntu heltzeko. Sentsazio onekin nago, gustura. Entrenamendu onak egiten ari naiz eta ea kaiolara une onean iristen naizen.

Mariezkurrenarekin batera udako izarretako bat zara. Jokatu dituzun hiru finalak irabazi dituzu: Gasteizkoa Zabaletarekin, eta Donostiako Hiria eta Caixabank Mastersa Mariezkurrenarekin.

Udako hiru torneo horiek irabazteaz gain, Sanferminetako Lau eta Erdia ere lortu nuen. Zer esango dut, udan lau titulu irabazita oso pozik nagoela, uda



Ezkurdia, Mariezkurrenarekin, CaixaBank Masterseko sariak jasotzen. NAFARROA ARENA

"UDAN LAU TITULU IRABAZITA OSO POZIK NAGO, SENTSATIO ONEKIN; EA HORRELA JARRAITZEN DUGUN"

bikaina izan dela. Gustura sentitzen naiz, eta ea horrela jarraitzen dugun.

Mariezkurrenarekin oso ongi elkar ulertzen duzue.

Bai, hala da. Jonekin jokatzeko gozamenak da, sekulako potentzia

dauka. Udan jokatu dituen sei finalatik bost irabazi ditu eta sasoi bikainean dago. Ikaragarri. Igandean, CaixaBank Masterseko finalean hasieran pixka bat azeleratuta ibili ginen, txapela irabazi nahi horrekin akats gehiegitxo egiten, baina ez genuen konfiantza galdu, bagenekielako gu ari ginela erritmoa jartzeko eta gu ginela kantxan agintzen genuenak. Bukaeran 22 eta 15 irabazi genien Altunari eta Imazi, eta egindakoarekin eta Nafarroa Arenan zegoen giro bikainarekin oso gustura nago.

Bakaikoa, Promozioko txapelari eustera

Promozioko Lau eta Erdiko Txapelketan lehiatuko da Joanes Bakaikoa, larunbatean maila nagusiko atarikoan Agirrerren kontra 22 eta 13 galdu eta gero.

Joanes Bakaikoa da Promozioko Lau eta Erdiko egungo txapelduna. 2018an ere kaiolako txapelketa irabazi zuen. Bera da txapelketa irabazteko faborito nagusia, errematatzaile bikaina izateaz gain defentsan oso sendoa baita. Azaroaren 12an Labriten jokatu den finalera heltzea da bere helburua, eta horretarako asteburuan hasiko den Promozioko Lau eta Erdiko final laurdenetako ligaxkan lan ona egin beharko du. Ostiralean, Atarrabian, Javier Zabala izango du aurkari.

Lau eta Erdiko egungo txapeldun Altuna da hastear den kaiolako txapelketako faborito nagusia, hiru txapelekin. Zu, bi txapelekin, eta Laso zarete beste faboritoak.

Hemen pilotari guztiek asko jokatzeko dute. Nik argi dudana da Lau eta Erdiko txapelaren lehia horretan aritu nahi dudala eta final hori jokatu nahi dudala. Une honetan gozatzen ari naiz, tantoak erraz amaituz, eta horri eutsi nahi diot. Dudan guztia emango dut Lau eta Erdian aurrera egin eta finalerako sailkatzeko.

Arakilgo Zalduek denboraldi berriari ekin dio

FUTBOLA Asteburuan hasi zen 51. Elomendiko Futbol Txapelketan lehiatuko da, 38. urtez, talde arakildarra

51. Elomendi Futbol Txapelketa abian da. Futbol federatutik kanpo jokatzeko den txapelketa da, benetako futbol xumea. Aurten babesle berria du talde arakildarra eta Zalduek Orleghy R. izena hartu du. Joan zen urtean

Elomendiko 50. Urteurrenako Trofeoa eta Elomendiko Kopa irabazi zuten arakildarrek, eta aurten ere lan ona egin nahi dute. Lehen jardunaldian 3 eta 2 irabazi zioten Izalsari eta asteburuan Unziti izango dute arerio.



Zalduek, joan zen denboraldian Elomendiko Kopa irabazi zuenean. ZALDUEK



Mikel Uncilla, igandean, Atarrabiako Udala Sariaren helmugan. MARTIN EARLY

Mikel Uncillak garaipenarekin esan du agur

TXIRRINDULARITZA Sakana Group-Aralar taldeko etxarriarra esprintean gailendu zen Atarrabian

Maidar Betelu Ganboa ETXARRIARANATZ

Igandean jokatuak XLVII. Atarrabiako Trofeoarekin despeditu da 2022ko kadeteen eta juniorren txirrindularitza denboraldia. Sakana Group-Aralar talde sakandarrak gogotik egin zuen lan Mikel Uncilla eta Aimar Tadeo bere txirrindulariak aurrean egon zitezten. Azkenean Mikel Uncillaren eta Adria Pericasen (Purito-Tadesan-Nuria) esprintak erabaki zuen proba eta etxarriarra gailendu zen (1:41:22). Aurreko astean Indurain Anaiak Sari Nagusian bigarrena izatearen arantza kendu zuen. Aimar Tadeo laugarren sartu zen, 56 segundora, eta Quesos Albeniz-Burundako Iker Agudelo Top-Tenean sartzean egon zen, 11. sailkatu baitzen. Uncillak mendiaren saria irabazi zuen, eta talde onenaren saria Sakana Group-Aralar taldeak lortu zuen, denboraldia bukatzeko lorpen ederra.

Sei garaipen, palmares ederra

Uncillak denboraldi bikaina egin du. Junior mailako Euskal Herria Torneoa irabazi du, Itaroako Challengea eta Udazkeneko Torneoa. Azken honetan denboraldian jokatuak azken lasterketek puntuatu dute. Guztira sei lasterketa irabazi ditu: Amorebietako Udaberriko Klasikoa, Villatuertan jokatuak bi lasterketak, Cendea de Galarko lasterketa, Arantzazuko Igoera eta Atarrabiako Udala Trofeoa.

Espainiako txapeldunordea

Bestalde, Valladoliden jokatuak Espainiako Txirrindularitza Txapelketetan zilarrezko domina lortu zuen eta Euskal Herriko Txapelketan, Nafarroako Erlojupeko Txapelketan, Gipuzkoako Itzulian, Iruñeko Itzulian eta "Klasika Premundial" izenez ezagututako Beasaingo Proban txapeldunorde izan da.



Joseba Iraolak irabazi zuen iaz, eta marka berria ezarri zuen: 3:01.528. Aurten ere faborito nagusia da.

Joseba Iraola, faborito nagusia Urbasako Igoeran

AUTOMOBILISMOA Sakana Motorsportek milaka motorzale espero ditu larunbatean jokatu den 40. Urbasako Igoeran. 100 autoen muga berehala bete zen, eta ikuskizuna 13:00etan hasiko da, entrenamenduekin. Urbasako errepidea gaur itxiko da

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI

Sakana Motorsport eskuderiak guztia prest du bihar, larunbata jokatu den Sakanako motor festa arrakastatsua izan dadin. Urbasako Igoerak data borobila bete du aurten, 40 urte, eta motor ikuskizuna berezia izatea espero dute. Urbasako portua gaur, ostirala, 19:00etan itxiko dute Foruzainek, segurtasunagatik, eta bihar 13:00etan hasiko da ikuskizuna, lehen entrenamendurekin. Haren segidan probako bi mangak etorriko dira.

Urbasako Igoerak erakartzen du. Ez da berria. "100 autoren muga edo aforoa dugu, eta tokia berehala bete zen. Gutxienez hogeitau geratu dira parte har-

tu ezinik" azaldu du Sakana Motorsporteko Raul Lopez Patxu-k. "Faborito nagusia joan zen urteko irabazle Joseba Iraola izango da, zalantzarik gabe" gaineratu du Patxuk. Daniel Jimenezek eta Arkaitz Ordokik bere barketak prest izanen dituzte Iraolari aurre egiteko, eta lehia estua espero da, joan zen urtean bezala, hirukoteak lehen hiru postuak lortu baitzituen. Iraolak Urbasako Igoerako gaur eguneko ibilbideko errekorra apurtu zuen (3:01.528).

Tartean pilotu sakandarrak ere egonen dira, Iker Palacios, Mikel Mendinueta, Iker Azkargorta, Ander Gurmino, Delfin Goikoetxea eta Iban Lopez de

Goikoetxea, esaterako. Beste zenbaitek ezin izan dute Urbasako Igoerarako autoa prest izan.

Larunbatean milaka zale espero dira Urbasan. Antolakuntzatik Urbasa-Andia parke naturala dela gogorarazi nahi diete, zaborrik ez botatzeko eta komisarioek eskatutako neurriak bete ditzatela. Eta, jakina, disfruta dezatela.

5,93 km eta 39 bihurgune

Ibilbideak 5,93 km eta 285 metroko desnibela du, eta Olaztitik Urbasako portua igo arte jokatuko da. Lehen zatia oso azkarra da, eta bigarren zatia, aldiz, teknikoagoa da, bihurgunez jositakoa. Guztira 39 bihurgune dira.

Denboraldi "oso polita" izan da

Mikel Uncillak denboraldiaren balorazio positiboa egin du. "Denboraldi oso polita izan da, asko disfrutatu dugu eta egindakoarekin oso pozik nago" dio. Sei garaipen ditu, baina beste horrenbeste eta gehiago bigarren postu. Iruñeko Itzulia ez irabaztearen arantza hor du, agian. "Iruñeko Itzulia segundo bakarrarengatik ez irabazteak, lider izan ondoren, sekulako amorrua eman zidan, baina zer egingo diogu" azaldu du. Denboraldia Atarrabiako garaipenarekin bukatzea "oso handia da. Alde batetik, pena dut junior mailari agur esan eta nire txirrindularitza etapa bati agur esango diodalako, baina datorren urtean afizionatuetan nire ibilbidea jarraitzea espero dut" dio, itxaropenez. Orain merezitako atsedena hartuko du.

Erbiti: 39 urte, 19 denboraldi

TXIRRINDULARITZA Movistar Team-ek beste urte batez luzatu dio kontratua Imanol Erbitiri. Hiriberriko txirrindulariak 39 urterekin profesional mailako bere 19. denboraldiari ekingo dio 2023an. "Denboraldi bukaera ezberdina izaten ari da, Italiako klasikoa jokatzeko ari bainaiz, erretiroa hartuko duen Valverderek. Faltan botako dugu" azaldu du.



MOVISTAR TEAM



Korrikalariak Urbasara igotzen. Irudian, Raul Audikana, lehen olaztiarra. N. MAZKIARAN

Urbasa-Andiara begira

MENDI LASTERKETAK Eki Imaz eta Izaskun Beunza gailendu ziren Olatzagutia-Urbanen eta Ion Sola eta Maria Ordoñez Mendira Joan Etorrian, goizeko lainoari eguzkiak lekua hartuta. Olaztin etxekoak izan ziren protagonista, eta Etxarrin errekorra apurtu zen


"Orain arte izan dudan garaipenik politena izan da"

IZASKUN BEUNZA AZAZETA KORRIKALARIA

Lehen aldiz irabazi duzu Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa, jaioterrian.

Berezia izan da. Orain arte izan dudan garaipenik politena dela esango nuke. Hala sentitzen dut. **Pistan eta asfaltoan ibiltzen zara gehiago eta, horregatik, agian, zapora bereziagoa du garaipen honek.**

Herrikoa da eta ongi egin nahi izaten dut. Udan prestatzen dut. **Azken bi urteetan ez da egin, eta bueltaren kutsu hori zuen.** Azkeneko bi urte hauetan egin ez izana pena handia izan da, San Migeletan giro polita jartzen baitu.



Proba bueltatu da eta familia eta lagunak inguratuta irabaztea amets polita izan da.

Nola planteatu duzu?

Ni goraka oso ongi joaten naiz. Asfaltozko entrenamenduak ongi

datokit, pisu gutxi dut, eta, orduan, goraka ongi noa. Aldiz, behar ez noa ongi, teknikarik ez dudalako. Beraz, argi nuen zer egin: goraka estutu eta alde hartu, gero jaisterakoan lasaigo ibiltzeko. Halako aldearekin herrian irabazi izana gozatu dut. **Gainera, sekulako saski ederra jaso duzu opari.** Bai. Eskerrak eman nahi dizkiet antolakuntzan daudenei eta bere laguntza ematen duten bertako komertzioei. Horri esker lortu ditugu saski eder horiek.

Bestelako egutegia duzu orain. Pena dut Etxarriko Mendira Joan Etorria batera izatea, bestela animatuko nintzateke. Baina bai, hilabete bukaeran Nafarroako Kros Txapelketa jokatu du eta krosaren zurrumbilo horretan murgilduko naiz.

Maidar Betelu Ganboa

OLAZTI / ETXARRI ARANATZ

Asteburuan bi mendi lasterketa jokatu ziren Sakanan: larunbatean Sutegik antolatutako XIV. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa (15,23 km eta 900 m desnibel +) eta igandean Udaberri elkarteak antolatutako 47. Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorria (10 km, 557 m desnibel +). Biak baldintza ia antzekoetan erabaki ziren, hau da, lainoaren hasi, eta eguzkia ondoren, eguraldi fresko, sano eta korrika egiteko aparta.

Olaztin, giro berezia

Olaztin 102 korrikalarik eman zuten izena eta horietatik 88 sailkatu ziren, tartean 21 sakandar. "Lehen, Olaztitik aterata Urbasako zuloraino igo eta jaisten zen lasterketa izaten zen Olaztin. Zazpi urte inguru iraun zuen. Eta ondoren antolatu zuten Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa, aurten 14. edizioa izan duena. Hasieran proba luzea eta motza zeuden, baina azken hiru edizioetan proba motzaren alde egin dugu eta uste dut asmatu dugula. Ibarreko eta inguruko jendea poliki dator eta giro polita egoten da. Lasterketetako partaidetzak behera egin duela kontuan hartuta, 102k izena eman dute gurean eta pozik gaude" azaldu du antolakuntzako Fermin Zornoza. "Sutegik eta herriko korrikalariak antolatzen dugu" gaineratu du.

Alde handiz

Pandemiagatik azken bi edizioak jokatu ez zirenez, giro bereziagoa izan zuen lasterketak, San Migel festek festa giroz jantzi zuena. Antolatzaileak pozik, eta korrikalariak baita ere, Urbasako paraje zoragarrietatik korrika egitea gozamen hutsa delako. Aita olaztiarra duen Eki Imaz Ruiz de Egin aguraindarrak iritsi zen lehena helmugara (1:24:29), "oso pozik. Hiruzpalau aldiz aritu naiz lasterketa honetan, baina gauza batengatik edo bestearengatik ez nintzen aurrean iristen. Aurten lasterketa ongi egiteko gogoia nuen, propio prestatu dut eta dena ongi atera da" azaldu

EKI IMAZ AITAREN HERRIAN IRABAZI IZANAGATIK POZIK, ETA IZASKUN BEUNZA, ZER ESANIK EZ

Sakandarrak Olaztin

XIV. Olatzagutia-Urbasa (15 km)

• Gizonak

1. Eki Imaz	1:24:29
4. Jabi Gasanz	1:31:00
5. Jose Luis Beraza	1:31:52
13. Raul Audikana	1:39:23
19. Ioseba Iza	1:43:52
26. Fran Araña	1:47:46
45. Asier Leiza	1:56:07
55. Ander Orabengoa	2:02:01
56. Ruben Izko	2:02:09
57. Roberto Zornoza	2:02:11
58. Iurgi Flores	2:02:12
61. Alberto Arrizabalaga	2:03:29
66. Iñaki Ganuza	2:11:29
67. Ioni Araña	2:11:57
75. Iker Zeberio	2:19:51
77. Juanjo Otsa	2:20:39
79. Iñaki Lacalle	2:21:58
82. Raul Mendoza	2:24:58
84. Sergio Goñi	2:31:05

• Emakumeak

1. Inmaculada Pereiro	1:57:25
2. Ines Moreno	1:59:30
11. Silvia Perez	2:21:46

zuen. Lasterketa erdian aurreratu zuen bigarren sailkatu zen Garikoitz Bravo lazkaotarra (1:27:51), "eta hortik aurrera buruan jarri naiz. Nire erritmoari eutsi diot, goiko zatian pixka bat estutu dut eta aldapan behera dena eman dut" zehaztu zuen. Eskuin besoan zauria zuela iritsi zen helmugara, "jaisten ari nintzela azken aldapan behera estropezu egin eta erori naizelako, baina ez da aparteko ezer. Txapa eta pintura" zioen irribarrez. Aitaren herrian irabazi izanagatik "oso kontentu" zegoela berretsi zuen 2022ra arte inolako garaipenik ezagutu ez zuen eta aurten bizpahiru lortu dituen gazte aguraindarrak. Hirugarren Borja Villar mendiolarra sailkatu zen (1:29:49).

Helmugara laugarren postuan iritsi zen Jabi Gasanz altsasuarra izan zen lehen sakandarra (1:31:00). "Gaizki ibili naiz, hasieran aldapan gora ezin korrika egin. Lagun batzuek esan didatenez 20. postuan iritsi naiz gora. Pisutsu sentitu naiz. Baina gero hobera egin dut eta asko erremontatu dut" azaldu zuen. Lehen beterranoa bosgarren postuan sartu zen Jose Luis Beraza uharre arakildarra izan zen (1:31:52), eta lehen olaztiarra hamahiru-

garren sailkatu zen Raul Audi-kana (1:39:23).

Emakumezkoetan, Izaskun Beunza Azazeta olaztiarrak bere herriko mendi lasterketan lehen garaipena lortu zuen, eta pozez zorutzen zegoen (1:47:04). Hiru minutu baino gehiago atera zizkion Janire Agirre ataundarrari (1:50:25). Maria Ibarrola subizarrak osatu zuen podiuma (1:55:18) eta Ines Aguado izan zen lehen beteranoa (2:03:28).

Mendi lasterketa jokatzeko bitartean 0-4 urte bitarteko haurrendako GP Motor lasterketa, eta 4 eta 7 urte bitarteko, 7 eta 10 urte arteko eta 10 eta 13 urte arteko haurrendako probak jokatu ziren. Guztira 55 partaide animatu ziren.

Etxarri, errekorrak apurtuz

Igandean ferietan murgilduta zegoen Etxarri Aranatzek 47. Mendira Joan Etorria hartu zuen, plazatik abiatuta Urbasa-Andiako Bargara, Hartzabalera igo eta handik plazara jaisten zen proba. Guztira 86 korrikalari zeuden izena emanda eta horietatik 77k osatu zuten 10 km eta 557 m desnibel + zuten lasterketa gorabeheratsua. Ohi denez, jendetza bildu zen plazan, eta korrikalariak txalo zaparrada artean iritsi ziren helmugara. Korrikalariak, bezperan Olatzagutia-Urbanan gertatu bezala, lainoa izan zuten bidaide lasterketako lehen zatian, baina gero eguzki eder askoa atera zen.



Helmugan bildutako txalo zaparrada jaso zuten korrikalariak. Argazkian, Beñat Anda, etxeko txikiekin helmugaratzen.

Lasterketa perfektua

Lehena Ion Sola Torralba anozdarra izan zen (46:47). Ez zen Juan Mari Garinen errekorra (42:50) gerturatu ere egin, baina minutu pasa atera zion Txantreako Aitor Blancori (47:32). Narbarteko Jokin Arretxeak osatu zuen podiuma (47:48). "Topera atera naiz eta gora minutu bat baino gehiagoko alderekin iritsi naiz. Jaitsieran alde gehiago ere atera dut, baina 2 kilometroren faltan ez naiz ongi sentitu eta eskerrik tarte handia nuela, helmugara iristea asko kostatu

egin zaidalako" aitortu zuen. Etxarriko lasterketa "polita eta osoa" zela adierazi zuen, "denetik duelako". Lehen sakandarra Aritz Munarriz etxarriarra izan zen, helmugara bosgarren iritsita (49:58), eta lehen beteranoa Mikel Altadill leitzarra (53:15).

Emakumezkoetan bigarren urtez jarraian Maria Ordoñezek eman zuen sorpresa. Joan zen urtean errekorra 52:14an ezarri zuen, eta aurreko bere errekorra 46 segundotan hautsi zuen (51:28). Ikaragarria izan zen Ordoñezen lana, errekorra apur-

teaz gain sailkapen absolutuan hamaikagarren sailkatu baitzen. Uharteko Arakil-Beriain Km Bertikalean bigarren sailkatu zen Ordoñez, eta Etxarri Aranatzeko lortutakoarekin "oso pozik" zegoen, "ez nuelako konfiantza handirik. Joan zen urtean baino askoz ere lokatz gutxiago zegoen eta alde horretatik errekorra gaitzitu zitekeela uste nuen, baina igoeran pattal antza sentitu nintzen eta okerrago nengoela, sentazio hori nuen". Baina bere usteak ustel izan ziren, Valladoliden jaio eta Iruñean bizi den 29 urteko gazteak errekorra alde handiz apurtu zuela. Zortzi minutu pasa atera zizkion Laiane Arrosperidi (59:34). "Niretako Etxarriko lasterketa perfektua da. Gogorra da, 51 minutu topera, baina igoera du, jaitsiera, lau den eremua... denetik du" nabarmendu zuen. Hirugarren Maite Beregaña uharteko arakildarra sartu zen (1:01:07), eta lehen beteranoa Nerea Amilibia izan zen (1:01:19). Eneritz Karasatorre izan zen lehen etxarriarra (1:03:22).

Nabarmentzekoa da parte hartu zuten sakandarren kopurua handia izan zela: 77 sailkatueta-tik 36 ziren sakandarrak.

MARIA ORDOÑEZEK 46 SEGUNDOTAN APURTU ZUEN BERAK IAZ BERRITUTAKO ERREKORRA: 51:28

Sakandarrak Etxarri

47. Mendira Joan Etorria (10 km)

• Gizonak

1. Ion Sola	46:47
5. Aritz Munarriz	49:58
9. Iñaki Garmendia	51:01
13. Ekhi Congil	52:34
17. Mikel Satrustegi	53:50
18. Ander Unzurrunzaga I.	54:10
19. Beñat Anda	54:48
20. Ander Unzurrunzaga G.	55:02
21. Unai Razkin	55:38
22. Joseba Galarza	56:20
25. Aimar Araña	58:01
26. Andoni Goikoetxea	58:01
27. Santi Galarza	58:25
28. Ivan L. De Sabando	59:03
29. Iban Verdugo	59:19
31. Juan Mariñelarena	59:40
33. Iñigo Orradre	1:00:54
34. Ibon Ubeda	1:01:03
37. Bernardo Garzandía	1:01:47
38. J. Antonio Salgado	1:02:06
42. Unai Kintana	1:03:48
43. Iosu Jaka	1:03:48
44. Jon Zabaleta	1:03:51
47. Goyo Rodriguez	1:05:21
50. Jon Igoa	1:07:14
51. Iñaki Agirre	1:07:30
56. Ismael L. de Goik.	1:07:59
57. David Oroz	1:08:03
62. Rafael Lakuntza	1:10:40
69. Patxi Atxa	1:17:24

• Emakumeak

11. Maria Ordoñez	51:28
35. Maite Beregaña	1:01:07
40. Eneritz Karasatorre	1:03:22
59. Erkuden S. Martin	1:09:18
60. Maite Zabaleta	1:09:19
66. Gurutze Ubeda	1:12:46
67. Marta Irañeta	1:13:32
74. Sarabe Arakama	1:25:36

"Aurten Joan Etorrian egon den giroa ikusgarria izan da"

ARITZ MUNARRIZ IGOA KORRIKALARIA

Herriko proban bosgarren (49:58). Egindakoarekin kontentua?

Herriko proba da, hau izan zen nire lehendabiziko lasterketa, eta beti berezia da. Denbora hobea egin nahi nuen, baina ibilbidean ustekabe pare bat izan nituen.

Zer gertatu zitzaizun, bada?

Katarroarekin ibili nintzen eta gorpuzkera aldetik sentazio nahiko arraroa nuen. Lasterketa honetan beti oso azkar ateratzen gara. Erritmoari eutsi, eta goraka hasten garenean erremontatzen hasten naiz. Baina igandean ez nituen Km Bertikalean Beriainen



gora nabaritu nituen sentazio horiek sentitu; ez nuen puntu hori. Hala ere, Hartzabalera nahiko ongi iritsi nintzen. Beheraka pixka bat arriskatu nuen, baina buruarekin adar bat jo eta hortik aurrera


gurutzatuta ibili nintzen. Herrira iristeko kilometro baten faltan zapatilaren soka askatu, beste hankarekin zapatu eta muturrez erori nintzen. Denbora, berez, ez da txarra, 50 minututik jaisteko asko eman beharra dagoelako, baina badakit denbora hobea egin ahal nuela. Dena den, horrela atera zen eta kitto. Ez zaio buelta gehiagorik eman behar.

Sekulako giroa zegoen.

Ikusgarria. Ez dakit urtetik urtera giro gehiago ote dagoen, baina aurtengoa sekulakoa izan da. Herrian jende pila zegoen, mendian ere... Plazara sarrera sekulakoa izan zen.

Hemendik aurrera, zer?

Bertako lasterketak eginda, pozik nago. Pena Olaztioko egin ahal ez izatea. Aurki maratoi bat egingo dut, baina beste txip batekin.



Maria Ordoñez, Maiatzara bidean.



2021eko Euskal Herriko Erdigunera Martxa. Mikel Goldarazena, bildutakoaren artean. UTZITAKOA

"Igandean lehen pausoa emango da Euskal Herriko Erdiguneari"

MIKEL GOLDARAZENA GOÑI IRATXO ELKARTEKO MENDIZALEA

MENDIA Nafarroako eta Euskal Herriko Mendi Federazioek idazki bat sinatuko dute etzi Euskal Herriko Erdigunera Martxan, entitate bakar gisa lan egiteko abiapuntua izango dena

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Igandean izanen da Euskal Herriko Erdigunera martxa. Aurten bereziagoa izango da, Nafarroako eta Euskal Herriko mendi federazioen nolabaiteko bateratze prozesuaren abiapuntua izango baita. Mikel Goldarazena Goñik hurbiltzeko gonbita egin du. **Euskal lurraldetasuna aldarrikatzeko egun gisa jaio zen Euskal Herriko Erdigunera martxa eta horrela jarraitzen du.**

Bai, halaxe da. Felix Isasa ingeniariak, orain dela urte dezente

Euskal Herriko Erdigunea non zegoen kalkulatu zuen, barizentzaren kontzeptuan oinarrituta. Erdigunea Beriango tontorretik 650 metrora kokatu zuen, Olibesarion (1.236 m). 2004an hura seinatzeko harriak eta beste-

"HEMEN HERRI BAT DAGO, LURRALDE BAT ETA DENOK BATERA LAN EGITEKO BORONDATEA"

lakoak jarri ziren. Azken urte hauetan mendi martxa bat antolatzen dugu bertara, euskal lurraldetasuna aldarrikatzeko. **Euskal Herriko Erdigunea toki paregabearen egotea egokitu da.**

Bai, Felix Isasa zenak esaten zuen: "pentsa Euskal Herriko Erdigunea industrialde batean legokeela; nolako frustrazioa". Baina toki berezi eta eder honetan egotea egokitu da, guretako oso hurbila eta Sakanako jendearendako oso berezia den Berriainen.

Irurtzango Iratxo mendi taldekoek hasieratik txertatu zenuten Euskal Herriko Erdigunea urtero antolatzen duzuen Sakanako Ibilaldian.

Isasak erdigunearen berri eman zuenetik Sakanako Ibilaldiaren ibilbidea moldatu genuen eta ordutik urtero Euskal Herriko Erdigunetik pasatzen da. Jende askok ateratzen ditu argazkiak bertan. Urtean zehar jende pila bat pasatzen da bertatik.

Urte batzuk dira Iratxo elkarte eta Sakanako Mendizaleak taldeak Euskal Herriko Erdigunera martxa antolatzen hasi zinetela.

Bai, urriaren bigarren asteburuan egiten dugu. Garai batean Independentistak sarearekin antolatu genuen ekitaldia, azkeneko urteetan Nafarroa Berriz Altxa! egitasmoarekin, eta aurten Nafarroako Mendi Eskalada Federazioak eta Euskal Herriko Mendi Federazioak egin dute bat, ekitaldi berezia izango delako.

Berezia, zergatik?

1924an Federación Vasco Navarra de Alpinismo sortu zen. Bi urte barru 100 urte beteko dira. Garai luze batean Euskal Herri osariko bakarra zen mendi federazioa izan genuen; mendizale guztiok geunden Vasco Navarra federazioaren barruan. Zoritxarrez, duela 30 urte pasa autonomiak sortu zirenean federazio guztiak autonomiara antolatu ziren. Une honetan Nafarroako eta Euskal Herriko federazioak prozesu bat martxan jarri dute, bi federazioen jarduna bateratua izan dadin. Federación Vasco Navarra de Alpinismo zenaren sorreraren 100. urteurrenaren harira 2024an ekitaldi asko antolatuko dira, eta igandean Euskal Herriko Erdiguneko Martxa lehenengo ekitaldia izango da, prozesu guztia abiatuko duena. Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioko presidente Martin Montañesek eta Euskal Herriko Mendi Federazioko presidente Zigor Egiak protokolo antzeko bat sinatuko dute. Bertan jasoko dira heldu diren bi urteetan zein pauso jarraituko diren bi entitateak entitate bakar gisa funtzionatzeko. **Beraz, lurraldetasun aldarrikapena mendi federazioetara aplikatuko**

"SAKANAKO ADARRA 9:30EAN ABIATUKO DA IRAÑETAKO BORDATIK. HERRITARRAK ANIMATZEN DITUGU"

da, bi federazioek bakar gisa lan egiteko prozesua onartuko baita.

Urte askotan bi federazioen artean ez da harreman handiegirik izan. Indiferentzia handia zegoen. Pertsonak aldatu dira, giroa aldatu da, eta egun oso giro onean daude bi zuzendaritzak: biak ados daude prozesu honetan. Sortuko den entitate berriak zein forma juridikoa hartuko duen aztertzen ari dira.

Honek guztiak igandeko Euskal Herriko Erdiguneko Martxari indarra emango dio.

Bai, aurten martxak plus bat du, bi federazioek sinatuko duten idazkian bi urte barru berriro bat egiteko duten borondatea azalduko baitute. Entitate berriaren formatu juridikoa aztergai dago, baina garrantzitsua da bi federazioak sintonia onean daudela. Hemen herri bat dago, lurralde bat eta denok batera lan egiteko borondatea. Ni Federación Vasco Navarra de Alpinismo taldearen 100. urteurrenoko ekitaldiak antolatzeko bi bileretan egon naiz eta urteurrenoko ekitaldiak giro oso onean antolatzen ari dira. Igandean lehen pausua emango dugu Euskal Herriko Erdiguneari.

Bi adarretatik abiatuko da martxa. Sakanatik Irañetako Udalak Andia aldera duen borda zoragarritik abiatuko da, 9:30ean. Hortik ekingo diogu igoerari. Beste adarra 8:45ean abiatuko da Senosiain aldetik. Bide honek aldapa gutxiago du, zelaiagoa da. Bi adarrak Euskal Herriko Erdiguneari elkartu, eta 11:00etan hasiko da ekitaldia.

Eguraldi ona iragarri dute. Beraz, dena alde.

Bai, hala dirudi. Ekitaldia bukatuta, Irañetako bordan pintxo potea izanen da bildutako guztiendako, eta horretaz gain, herri bazkaria egingen da bordan bertan. Bazkarirako aurretik eman behar da izena 620 190 277 telefonoan edo Sakanako Mendizaleak edo Iratxoko jendeari esanez, eta han ikusiko dugu elkar.

Lakuntzako baba txikiak dastatuko omen dituzue.

Bai, dena etxekoa eta bertakoa. Jendea animatzen ari da, eta badakigu Donostiako Egia auzoko mendi talde bat ere martxara etorriko dela. Sakandarrak egun eder honetan parte hartzera deitu nahi ditugu. Eguraldi ona egiten badu, askoz arrazoi gehiago martxara joateko. Anima daitezela.



Eneko Lazkoz, ezkerretik lehena, Gotaine-Irabarneko saioan. GARI GARAIALDE/XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

"Bertsotan asko disfrutatzen dut; bertsolaritzak asko eman dit"

ENEKO LAZKOZ MARTINEZ BERTSOLARIA

Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen fasearen hirugarren saioan "gustura" mustuzen etxarriarra txapelketan, Gotaine-Irabarnen. Fasea bukatzera itxoin behar du

Eneida C. M. eta Erkuden R. B.
ETXARRI ARANATZ

Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen fasearen lehenengo saioan aritzekoa zen Eneko Lazkoz Martinez, irailaren 29an, baina azken orduko aldaketa batengatik urriaren lehen mustuzen txapelketan, Gotaine-Irabarneko saioan. Bertsotan "disfrutatu" zuela esan du etxarriarrak, baina emaitzak ez ziren espero zituenak: 649,5 puntu lortu zituen. Matematikoki finalurrekoetarako sailkatzeko aukera duen

galdetuta, "ia-ia ezinezkoa" dela esan du bertsolariak.

Zer nolako sentsazioak dituzu? Nola prozesatzen da hori guztia?

Nahiko digestio gogorra izaten ari da. Egia esan, saioan asko disfrutatu nuen, zen plazagatik

"SAIOAN ASKO DISFRUTATU NUEN, ZEN PLAZAGATIK ETA BERTSOKIDEAK ERE ONGI ARITU ZIREN"

eta bertsokideak ere ongi aritu ziren. Denon artean talde polita egin genuen. Saioa oso ona atezara zen. Bertsotan disfrutatu nuen ere. Oso zaila izaten da horrelako toki batean disfrutatzea, eta oso gustura aritu nintzen. Nik uste maila ona eman nuela, baina gero puntuazioan ez nituen esperotako emaitzak jaso. Horrek ordura arteko zapore on guztia zakartu egin du. Bertsokak berriz aditu ditut ea oker ote nengoen ikusteko. Hor dago egindakoa. Epaitzea ere badakigu ez dela

lan erraz bat, eta epaileek horrela ikusi zuten gauza. Eta kitto. Askoz gehiago esateko ez dago.

Nafarroako Bertsolari Txapelketera baino gogorragoa izaten ari da?

Esango nuke baietz. Nafarroako Bertsolari Txapelketan txapela irabazteko aukera banuen, baina nik sentitzen nuen irabazi ez banuen ongi egin ez nituen gauzengatik izan zela. Orduan, errua zurea denean zurekin bakean jartzea erraza da. Uste duzunean zuk gauzak ongi egin dituzula, baina espero duzuna jaso ez duzula iruditzen zaizunean...

Horrelako hausnarketak elkarbanatzen dituzu?

Agian nire gauza da, eta ez zaio hainbeste buelta eman behar. Baina ingurutik antzeko ikuspuntua jaso dut. Saioan egon zen jendearengan eta abar. Sentsazioa hori zen. Horrelako gauzak gertatzen dira txapelketetan. **Zer ematen dizu bertsolaritzak? Eta txapelketek?**

Bertsolaritzak gauza asko ematen dizkit. Hasteko, asko disfrutatzen dut bertsotan. Disfrutatzen segitzen dut. Aurreko lanketan, lagunekin gelditu kantatzeko eta hitz egiteko. Gauza asko ikasi ditut bertsolari esker eta harreman on asko egin ditut ere. Txapelketek ematen didatena da, hasteko, kantatzeko aukera. Bestela, segur aski utzirik neuzkan bertsokak plazetan ez naizelako asko aritzen. Tarteko zaplazteko bat edo beste ematen dit ere, baina izena ematen dugun momentutik badakigu arrisku hori hor dagoela.

Saioan gaztetan zaharrena zinen. Belaunaldi aldaketa ematen ari al da? Sentipen hori duzu?

Egia da zaharrena nintzela, baina kantatzen nengoen arte ez nintzen horretaz konturatu. Bertsolari gazteagoekin kantatu nuen, baina oso gertu sentitzen ditudan bertsolariak dira. Batzuekin harreman asko daukat, gainera. Gai konkretu batzuk ateratzen ez badira, beraiek ume zirenean bizi izan zituztenak, eta ni gaztea nintzela, ez naiz konturatzen.

"BERTSOLARI GAZTEAGOekin KANTATU NUEN, BAINA OSO GERTU SENTITZEN DITUT"

Segitzeko asmoa duzu, beraz.

Bai. Ez daukat inolako asmoa uzteko. Tokiz kanpo sentitzen ez naizen bitartean edo disfrutatzeari uzten diodanean utziko dut.

Saioetako gaiak orokorrak izaten dira. Baina bertsolaria ezin da gartzetik at bizi, ezta?

Txapelketako saioko gaiak orokorrean oso onak iruditzen zaizkit. Justu lehendabizikoa, emakumezko kirolarien uniformeak, ez zitzaidan tokatu paper oso erraza defenditzeko, baina uste dut ongi egin nuela nire lana. Nik uste edozein pertsonak behar duela gaurkotasuna jarraitzeko. Ez dut uste bertsotan ibiltzeagatik egin beharreko lan bat denik. Askotan ematen du bertsolari batek denari buruz jakin behar duela eta denari buruz iritzi garbi bat eduki behar duela. Bertsolaria pertsona normala da, gauza batzuk kontrolatzen ditugu eta beste batzuk ez. Askotan ez daukagu iritzi garbi bat zerbaiten inguruan.

Lehenengo astean hastekoa zinen, eta azkeneko aldaketa bat egon zen. Gauza horiek eraginik dute?

Gaixotu nintzen eta itxaropena neukan Getxoko saiorako sendatzeko, baina ez nuen denborarik izan. Aldaketa eskatzeko aukera hor zegoen eta denborarik ematen ez zidala ikusirik eskatu nuen. Ez nuen eskatu nahi beste pertsona bati eragiten ziolako ere, eta horrek ardura sortzen zidan. Hasieran nahiko garbi ikusten nuen ahal izango nuela, baina gero ikusi nuen ezetz. Lehenago ikusi izan banu lehenago abisatuko nukeen. Oso lasai eraman nuen kontu hori. Ez dut uste eragin zidanik.

Asteburu honetan lehen fasea amaituko da. Nola ikusten duzu txapelketa?

Igandean ez nuen animo handirik, eta ez nuen asko jarraitu saioa. Ea zer nolako saioak diren bi azkenak. Normalean, batez ere azken saioan, nahiko tentsioa izaten da, gutxi gorabeherako langa jarrita dago, eta batzuk esperoan dauden pasako diren edo ez ikusteko. Aurreko txapelketan azken saio horretan kantatu nuen, eta ez zitzaidan kantatzen erraza irudititu. Tentsio gehiago egoten da.

Pasako zara?

Berez, uste dut matematikoki pasa naitekeela, baina ia-ia ezinezkoa da.

Euskaraz kantatzeko hautua egin dute

Euskaraldia prestaketen ekimene barruan 'Musikariak hizketan' solasaldia antolatu zuten Altsasun. Skabidean-eko Nikolas Leonardo eta Antonio Iriarte eta Ibil bedi-ko Amets Aranguren musikariak aritu ziren hizketan

ALTSASU

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra izanen da aurtengo Euskaraldia, eta "hitzez ekiten" joateko Altsasuko batzordeak eta Kima euskara taldeak, Altsasuko udalaren, Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin batera, *Musikariak hizketan* ekimena antolatu zuten

aurreko ostiralean. Aitziber Grados Muñoa kazetariak gidatutako hitzaldian, Skabideaneko Nikolas Leonardo eta Antonio Iriarte eta Ibil bedi-ko Amets Aranguren musikariak haien taldeen inguruan hitz egin zuten. Bi taldeek euskararen hautua egin zuten.

Skabidean eta Ibil bedi taldeen sorreraz hitz egiterakoan ele-

mentu amakomun bat zutela konturatu ziren musikariak: Iruñeko Iturruma institutua. Ikasleak zirenean inauteriak eta Olentzero bezalako festetan antolatzen zituzten kontzertuak "erreferenteak" izan zirela esan dute Leonardok eta Iriartek, baita Aranguren ere. "Institutuan musika erreferentzia asko izan ditugu beti; oso gazte gine-la, DBH1 mailan kontzertu horiek ikusten genituen, eta DBH4 mailan sortu genuen taldea zazpi lagunok. Gero jende gehiago batu zen. Hamar gara orain".

Arangurenendako ere "erreferente" izan ziren kontzertuak, baina taldea sortzeko Silvia Perez Cruz musikariak Kursaalaren emandako kontzertua erabakigarria izan zen: "Areta Senosiainekin, taldeko beste neskaekin, joan nintzen eta pentsatu genuen ez maila horretan, baina horrek sorrarazi ziguna beste jende bati sentiaraztea saiatu nahi genuela". Ondoren, taldeko abeslaria izanen zenarekin, Ibairekin, elkartu ziren; hirurak hasi ziren, eta "oso denbora gutxian" beste bi kideak batu ziren.

"Nola da abestiak sortzeko prozesua?", Gradosen galderari erantzunda, "talde bakoitzean oso diferentea da", erantzun zuen Aranguren. "Pausoz pauso joan zen gauza bat izan zen. Ama hil zenean oso urte txarra pasa nuen, eta beti idatzi izan dut eta Ibaik ere gauzak zituen idatziak, eta hortik tiraka hasi ginen". Hasieran ez zuten "asko" pentsatu talde bat egiten ari zirenik. Batzuetan melodia batekin hilabeteak egon daitezkeela esan du. Estiloa definitzeko orduan, "amankomunean dugun lagun batek esan zidan berak sortzeko zer estiloko kanta egin nahi duen pentsatzen duela, rocka, esaterako, eta hortik hasi zela kanta egiten. Ez dugu hori inoiz planteatu". Ibil bedi-ko pop-a egiten duela



Amets Aranguren, Antonio Iriarte, Nikolas Leonardo eta Aitziber Grados.

azaldu zuen, baina ez dutela inoiz pop egitea planteatu.

Skabidean rocksteady estiloren barruan mugitzen da. "Jamaikan iristen zen Ameriketako musika *rhythm and blues* eta horrelakoak ziren, eta hasi ziren bertsoak *buggy* estiloen egiten. Horrek aurrera egin zuen eta ska klasikoa sortu zen hasieran, instrumentala gehienetan, eta gero rocksteady". Abestiak sortzeko orduan, Skabideaneko kideak elkartzen dira, eta zer joko duten pentsatzen dute.

Ospea

"Taldea 2012an sortu genuen eta lehenengo diskoa 2016an kaleratu genuen. Lau urte eman genituen bertsoak jotzen, eta oso pozik geunden". Azaldu zuten Skabideaneko kideak. "Asko kostatu zitzaigun konposatzeko grin hori izatea". Arrano elkartearen eman zuten diskoaren aurkezpen kontzertuan ehun bat pertsona joan ziren, "eta hori guretako oso kañeroa izan zen". Inflexio puntua, aldiz, Arrotxapeako Gaztetxean bigarren diskoa aurkeztu zutenean eman zen: "800 bat pertsona etorri ziren, eta hori guretako izan zen...". Kafe Antzokian, Totem eta horrelako aretoetan jo izana ere izugarria dela esan zuten. Ospea "oso gutxinaka" iritsi dela esan dute, "jo dugu bost pertsonendako, eta oso ongi pasa dugu". Hasieran

jarraitzaileak zirenak orain lagunak bihurtu direla ere esan zuten.

Iruñean sortu diren talde batzuekin "mito" bat badagoela esan zuen Aranguren: Iruñea Euskal Herriko musika kozinatzen den tokia dela "Objektiboki azken hiru urtetan talde batzuk sortu dira kasualitate askoren ondorioz Euskal Herriko barrena nahiko mugitu direnak, baina mitifikatu dela ikusten dugu barrutik". Momentuko zerbaite dela uste du, "badaude beste batzuk itzaletan gelditu direnak". Ikusi zuenean ezagutzen ez zuten jendea bere etxean konposatutako zerbaite abesten "puntu hori izan zela" esan zuen, "eta alde batetik ez zitzaidan gustatu". Batzuetan "arraroa" dela esan zuen.

Skabidean taldeko kideei "oso arraroa" egiten zitzaizkien reggaearekin gaztelaniaz egitea. "Baina ez oso euskaldun peto-petoak izateagatik; ez dugulako entzun. Ingelesekin entzuten genuen, eta gaztelaniaz oso arraroa zen". Euskaraz egitea pentsatu zuten hasieratik, "ez dakit erabaki politiko bat zen, baina hartzen genuen erabaki bat zen. Euskaraz konposatuko genuen, nahiz eta egunerokotasunean euskaraz ez egin".

Ibil bediren kasuan, "ez da modu esplizitu batean esan, baina seguruenik erabaki politiko bat egon zen. Zaila da jakitea zer punturaino dagoen hautu bat benetan". Iruñean D eruditik atera diren gazte taldeak gaztelaniaz egitea "oso arraroa" dela gaineratu zuen Aranguren.

Hirurek esan zuten oso zaila dela musikaz bizitzea, eta horregatik ulertzen zutela ere bi hizkuntzetan aritzen direnak.



BAZTERRETIK

HODEI ALEGRE GIL

Lukieken garraxia

Orain dela urte bat soilik jende gutxi ezagutzen zuten talde hau, Lukiek izenekoa, azeriak, bizkaitarra itxian. Taldearen osiera sinplea da, izan zitekeen egokiena nire ikuspuntutik: gitarra melodiko bat, baxu indartsu bat eta bateria zaratzatsua batez osatuta. Gitarra-jotzailea eta abeslaria ere Belako taldeko kide da.

Azken urteotan euskal musikaren panorama guztiz mugitu dute, beraien doinu itsaskorrekin entzule garenok guztiz bereganatu. Bizkaitar garbian eta indartsuan gedar egiten dutelarik baffleetatik kanpora. Estiloa rock alternatibo eta beste estilo batzuen nahasketaren ondorioa da, batzuetan Nirvanaren melodiak gogorazten dizkizuna. Bi disko argitaratu dituzte dagoeneko, baina zuzenean guztia hamaika bider handitzen da, kanten kemena, ikusle guztiok bat egin genuen adibidez Hatortxu Rocken, Atarrabiako belardian. Oñatin ere antzekoa izan



zen. Rock melodikoaren gainean kontraste handia ematen duten hitz gogor eta potenteak oihukatuz.

Beraien estiloa guztiz deskribatzen dute kanta orok, hasieratik beraien oinazea gogor markatuz. *Eroan Zaitue, Fluoreszenteak, Pitagoras* eta ezagunena den *Vanpiro Zara Orain* kanta entzunda guztiz sentituko zara musikaren barne.

Baina beraien ez dira bakarrak, beste talde batzuk badira, Ezpalak edo Vulk adibidez, musika klitxetik atera eta komertziala denari uko egiten diotenak.

Euskal musika *underground*-tzat jotzen dute batzuek egiten dutena, nik aldiz urteetan ezkutaturik egon eta berriro berpiztu den musikatzat hartzen dut.

**SKABIDEAN-EKOEK
EUSKARAZ EGITEA
PENTSATU ZUTEN; IBIL
BEDI-KOEI "ATERA"
ZITZAIEN ERE**

Literatura herrietan

'Mi pueblo lee' literatur jaialdien landa sareak, besteak beste, "goi mailako" idazleak herrietara eramatea du helburu. Hortaz, Mikel Santiago idazlea Iortia kultur gunean izanen da gaur, Barandiaran, Etxeberria eta Suarez idazle altsasuarrekin batera

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Behin herri batera joan nintzen eta hain polita izan zen, hain gertukoa, konturatu nintzela ni eta editorialak okertuta geundela". Maribel Medina idazlea *Mi pueblo lee* ekimenaren sortzailea eta sustatzailea da. Editorial handiekin "betiko zirkuitutetatik eta hirietatik" mugitzen zirela konturatu zen, Madrilgo liburu azoka, Iruñea beltza, Granada... eta herri batera joatea eskatzen ziotenean "beti atzeratzen joaten nintzen, zailagoa ikusten nuelako". Baina duela zenbait urte, herri batean egon ondoren, literatura jaialdien landa sarea sortzea erabaki zuen. Modu ofizialagoan duela hiru urte sortu zuten.

"Bat zenbakiak diren idazleak, figura handiak, normalean herri batera joango ez zirenak, herrietara eramaten ditugu eta herria idazleekin batzen ditugu, eta irakurzaletasuna sustatzen dugu". Urtero hemeretzi bat herritara iristen dira, aurten hogeitau, izan ere, idazleak azaldu duenez, Rosa Montero edo duela gutxi hil zen Almudena Grandes bezalako idazleak herri batera eramanda "ezin dituzu bakarrik utzi", eta bera ere joan behar da. Hogeitau herri horietatik, gaur, urriak 7, ostirala, jaialdia Altsasuko Iortia kultur gunera iritsiko da, eta literaturaren gala honetan Alberto Barandiaran, Izaskun Etxeberria eta Castillo Suarez idazle altsasuarren mahai ingurua izanen da, Victoria Mussetik gidatuta, euskaraz, eta Mikel Santiago nobela beltzeko idazlearekin topaketa izanen dira; 18:00etan eta 19:00etan, hurrenez hurren.

"Ohore bat da, bai. Herriek ezetz esaten ari gatzazkio; arrakastagatik hiltzen ari gara. Badira



Mikel Santiago idazlea Altsasun egonen da. UTZITAKOIA

hainbeste liburutegi, irakurle klubeta, orain, ikastetxeak, pena handiarekin ezetz esan behar diedala". Nafarroako Gobernuak diru laguntza eman die sarea herrialdetik zabaltzeko, "baietz esan nuen eta aukeratu nuen lehenengo herria Altsasu izan zen. Oso argi nuen". Medinaren senarra suhiltzaile izan zen urte luzez herrian, "eta herriak izan dituen konnotazio negatiboek amorru handia eman zidaten, oso lagun onak ditut, eta ez dut onartzen irudi hori saltzea. Altsasu askoz gehiago badelako". Gainera, Liburunda liburu dendarekin, ekimenaren antolatzaileetako bat, zor bat zuela esan du Medinaren ere: "Noizbait esan dit nire liburuak aurkeztera joateko, eta ez dut inoiz egin. Hor ere bazegoen errutasuna". Oso pozik dago Altsasura etortzeagatik. Oroitzapen politik izatea nahi du, eta horregatik Patxi Uriz National Geographic-eko argazkilaria izandakoa ere izanen da argazkiak egiten.

Idazleak

Liburundako liburu saltzaileari lehenengo gauza galdetu ziona izan zen zeintzuk diren liburu saldutakoenak eta berak erantzun zion Julia Navarro edo Mikel Santiago idazleek izaten zirela. "Santiago Bilbokoa denez, oso erraza izan zen, oso azkar baietz esan zuen". Lehenengo *Mi pueblo lee* izango da Santiagorendako. "Aurretik entzuna nuen, eta ideia ona iruditzen zait, behar diren gauza horietako bat, literatura topaketak eta herriei bizitza ematea; mugitu behar da". Ez da Altsasun inoiz egon, baina "ilusioz eta jakin-minez" dator. "Beti eramaten dut zerbait herrietatik. Jende maitakorra izaten da, eta ni ere maitasun guztiarekin joaten naiz".

Santiagok *Illumbe* trilogiaren azken liburua kaleratu du aurten, *Entre los muertos*. "Idazle bat margolari bat da, edo ni behintzat. Oso mentalitate bisuala dut, eta hasierako nobelak atzerriko lau toki desberdinetan oinarritu nituen, baina oinarrian inguruko irudiak zeuden: Bizkaia". *Illumbe* idazleak sortutako herri bat da, Bizkaiko kostaldea irudikatzen duena. "Ni zoriontsu izan naizen tokia, Urdaibai, haurtzaroko udak pasatzen nuen tokia eta oso ongi hartu nauen tokia". Bermeo eta Gernika artean dagoen herri bat da, mapan Mun-

daka izango zena, "gertatzen dena da mundakarrei fabore bat egiteagatik eta badaezpada nire nobelak oso ospetsuak egiten badira duten baino turismo gehiago ez eramategatik" sortu zuen *Illumbe*. Arrazoi tekniko eta artistikoak daude ere, izan ere, modu honetan tokiak lekuz aldatu eta haiekin jokatu dezake: "Izarbeltz irla Izaro izan daiteke, baina nirea bisitatu daiteke, Santa Brigida sanatorioa Gorlizkoa izan daiteke... Joko handia ematen dit".

Sortzeko uztartzen diren bi gauza behar dituztela esan du Santiago: "Premisa bat, normalean txinparta bat izaten dena, hasierako ideia bat; adibidez, *El Mentiroso*-n norbait amnesia-ekin esnatzen dela eta *En plena noche errepide* batetik bakarrik doan mutiko bat eta *Entre los muertos* maitaleak eta istripu bat izateak sortzen dituen arazoak. Horrek nobelaren doinua ematen dit, mekanika, zertara jokatuko dugun". Bigarren gauza pertsonaia protagonista izatea da. "Pertsonaia etorkizuna izatea, zerbait konpondu behar izatea, arnasten eta odolozten duen pertsonaia bat izatea". Gero, bestea, "garatzen" joaten da. Idazleek "ametsen eta memoriaoren" mundutik "arrantzatzen" dutela azaldu du, "eta itsaso arraro horietan sortzen dira".

Zergatik thriller idazlea? "Agian beldurtienak gara. Galdera asko egiten dizkiogu gure buruari heriotzaren inguruan, oso fatalistak gara, paranoikoak...". Thrillerreko edo nobela beltzeko idazleei tentsioko istorioak gustatzen zaizkiela esan du Santiago: "Agatha Christie, espioiak, erailketak, poliziaren nondik norakoak...". Idazleak *Los siete pecados capitales* programa aurkeztu du EITBn, non Euskal Herriko erailketa entzunenak aztertzen ditu. "Galdera on bat da, baina agian nire psikiatrari egiteko". Nobela beltza generoa "betidanik" gustatu izan dela gaineratu du. "Edgar Allan Pe, *El Caso* egunkaria... Betidanik existitu da heriotzarekiko eta krimenarekiko atrakzio morboso bat".

**'MI PUEBLO LEE'
LITERATUR JAIALDIA
GAUR IZANEN DA,
18:00ETATIK
AURRERA, IORTIAN**

"Erakusketa gehienbat omenaldia izanen da"

Joserra Beloki Urmeneta eta Patxi Irastorza Lazkoz Etxarri Aranazko Mikologi eta landareen taldeko kideak dira. Urriaren 9an erakusketa oso berezia egingen dute, Domingo Garciandia eta Fernando Goyari omenaldia egingo zaielako

Eneida C. M. eta Erkuden R. Barroso
ETXARRI A.

1 Urte lehorra izate ari da, zizak hartzeko zer moduz?

Patxi: Azkenean, baratzatik hasita ez dago ezer. Basoetan ezta ere. **Joxerra:** Euria egin du, baina ez nahikoa eta pixka bat berandu.

2 Zizak ateratzeko zer baldintza bete behar dira?

P.: Euri asko eta epela, beroa, ilbehera... Kontrolatzen ez ditugun baldintzak. Eta basoan egiten ari direna ez egitea. Basoak txikituta uzten ari dira. Urbasan, esaterako, pinuak kentzen ari dira, ekosistema berezia zegoen, eta desagertzen ari da.

J.: Bereziki ura behar da. Ur asko eta xuabea bada, hobe. Aurreko hilabeteak oso lehorrak izan dira, eta mendiak egarri ziren. Ateratzea atzera dezake, baina ezin da jakin.

3 Larritzeko moduko egoera bat da?

J.: Larritzekoa nik uste ez dela. Sistema oso konplexua da, eta horrelako faktore bat ez zait larritzeko modukoa iruditzen.

P.: Egoera da dagoena, eta badu



Patxi Irastorza eta Joserra Beloki Ziza eta landareen elkarteko kideak.

bere alde ona ere. Euri gutxiago, onddo gutxiago, eta jende gutxiago basoan. Bortzirietan gehiegi-

keria izan da, kanpoko jende asko egon da, eta hartzen duten guztia saltzeko, gainera.

4 Oraingo sasoiari, zer ziza espezie nagusitzen dira?

P.: Gehienak onddoak eta neguziza urdinak eta txuriak. Asko daude. Gibel urdinak ere.

J.: Momentu honetan, berezia izaten ari dena, lehorrea, zizak egurrean ateratzen ari dira. Egurren bustitzen da eta hortik espezie gehiago ateratzen dira. Lurrean luzeagoa eta zailagoa izanen da prozesua.

5 Eta landareak? Zein erakutsiko dituzue?

P.: Inguruko landare gehienak. Artoa, mahatsa, pegoa, haritza... Aurten landareei eskerrak. Erakusketaren mamia izan behar da duela denbora gutxi hil ziren Fernando Goya eta Domingo Gaciandia omentzea. Horiekien zorretan geunden.

6 Egoeragatik gutxi dago, eta beraz erakusketa ez zen egingo?

P.: Bixente Garciandia *Bartze* egongo balitz ez zen egingo. Bere ardurak gutxieneko bat egon behar zen. Guk gutxiagorekin ere egin ditugu.

J.: Oso perfektionista zen. Erakusketa oso on bat zen edo ez zuen merezi. Lehen posiblea zen espezie asko zeudelako, datorren urtean konfiantza izan beharko dugu.

7 Domingo Garciandiari eta Fernando Goyari omenaldia egingen diezue.

P.: Familiari zor diogu. Beti honetan ibili dira eta pila bat eman dute; gurekin lanean egon dira, Domingo belarretan eta Fernando zizetan. Oinarria ziren. Familiarekin 12:30ean bilduko gara eta detailtxo bat emanen diegu.

Ezin dugu esan zein den detailea, baina eskuz egindako oroigarri bat izanen da. Pentsatzen dugu familiari gustatuko zaiola.

J.: Hoberena eta kantitatean ekartzen zuten. Biak ateratzen baziren, erakusketa ziurtatuta genuen. Ekimen xumea izanen da, baina kuttuna.

8 Zein da taldearen osasuna? Jende gaztea sartu da?

J.: Ez dakigu zergatik, baina lehen gu txikitatik basora joaten ginen. Orain bigarren mailako interes bat da. Gazteek badute eskaintza oso handia. Mikologia ez da erraza, lanketa behar du. Ikastaroak egiten ditugu, eta jendea animatzen da.

9 Non hartzen dituzue zizak?

P.: Sakanan. **J.:** Baso mota desberdinen eta altuera desberdinetan jaso behar dira. Alturak prezipitazioan eragiten du. Aralarren, Urbasan...

10 Afizioa nondik datorkizue?

J.: Txikitatik joan izan gara basora. Nire etxean ama ere joaten zen onddoak hartzera. **P.:** Etetik datorkit ere. Beti ibili gara basoan, eta Bizente aldamera zen. Basoa berezia da, aste bukaeran joaten zara eta askatasuna eta lasaitasuna da.

11 Zein da gehien gustatzen zaizuen ziza?

J.: Bakoitzak berea du. Amanita Cesarea oso polita da. Onddo ziza erraza da, ateratzean denean asko ateratzen delako. Bakoitzak berea du.

P.: Basora joaten zara eta Amanita muscaria bat ikusten duzu eta oso polita da. Ni askotan gelditzen naiz begira.

EZAGUTU GURE IDEIEN EZTANDA

gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu